



II-A ERANSKINA

IX. LEGEGINTZALDIA

IX. Legegintzaldirako Planen eta Jarduera Adierazgarrien Egutegia, 2009-2013

PLANAK

INFORMAZIO FITXEN DOKUMENTUA

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1.- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Euskal Autonomia Erkidegoko V. Plana, 2010/2013.

1.- HELBURUAK

Berdintasunerako V. planak honako bi helburu ezberdinak ditu: berdintasunerako politiken gobernua hobetzea eta politika publikoetan genero-ikuspegia sustatzea eta hobetzea.

Gobernantza arloak eragina izan nahi du berdintasunerako politika espezifikoen garapenean. Politika horiek hiru ardatzetan oinarritzen dira V. planean, aldaketak eragiteko duten gaitasunaren edo gizarteak daukan beharraren arabera: emakumeen jabekuntza, ardurak partekatzen dituen gizarte-antolamendua eta emakumeen aurkako bortizkeria.

Emakumeen jabekuntza-ardatzak honako helburuak dauzka: genero-balioak, -rolak eta -estereotipoak aldatzea; emakumeak beren buruaren jabe izatea; emakumeek eskubideak, baliabideak... eskura izatea, kontrolatzea eta baliatzea, baita soziopolitikan parte hartzea eta erabakiak hartzeko aukera izatea ere.

Ardurak partekatzen dituen gizarte-antolamenduko ardatzak honakoak ditu helburu: zaintzako etika sustatzea, etxeko eta zaintzako ardurak eta lanak emakumeen eta gizonen artean partekatzea, laneko merkatuan ardurak partekatzeko neurriak sustatzea, eta zerbitzu soziokomunitarioak, herritarrentzako zerbitzu orokorrak, hirigintzako antolamendua etab... egokitzea.

Emakumeen aurkako bortizkeriaren ardatzak hauek ditu helburu: gatazken aurrean bortizkeriarik gabeko jarrerak eta konponbideak sustatzea, indarkeriazko jarrerak prebenitzea, egoerak garaiz hautematea, eta informazioa, babesia eta bortizkeriaren biktima izan diren emakumeen arreta hobetzea.

2. AURREKARIAK.

- Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Plana, 1991-1994.
- Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboko II. Plana, 1995-1999.
- EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana. Politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko, 1999-2004.-
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana, 2006-2009.

Hauteskunde-programan konpromiso bat zegoen, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko plan estrategikoa egiteko, eta honakoak izango ditu printzipio-gidariak: emakumeak guztiz herritar izatea, emakumeek erakundeetako zuzendaritzan parte hartzea, transbertsalitatea printzipio gidarizat hartzea, eta zientzian eta teknologian berritzea.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Lehendakaritza eta Emakunde. Emakunde erakunde autonomiaduna da, Lehendakaritzan dago atxikita, eta EAEko berdintasun-politiken sustapenez, aholkularitzaz, plangintzaz eta ebaluazioaz arduratzen da. Emakunderen helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eskuratzea da, politikako, ekonomiako, kulturako eta gizarteko esparru guztietan.

V. planean gobernuko sail guztiak daude sartuta (sail horietako langileek V. planaren zirriborroa definitzen aktiboki hartu du parte), gobernuko plana delako eta, berdintasun-politikei dagokienez, botere publiko guztiak orientatzea duelako helburu.

Herrizaingo Sailak aipamen berezia merezi du, sail horretan kokatzen direlako genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako jardunak. Jardun horietarako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu da, beren beregi.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Arauak:

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 15. artikuluan, jasotzen du Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko duela legegintzaldi bakoitzean. Plan horren bidez, modu koordinatuan eta globalean jasoko dira EAEko botere publikoen jarduna zuzenduko duten esku-hartzeko ildoak eta zuzentarauak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.

b) Antolakuntza:

Generoko *mainstreaming*erako funtsezko neurri bat da administrazioan mainstreaminga ahalbidetuko duten egiturak sortzea. Horretarako, 4/2005 Legeko II. tituluak eta bere garapen-arauek administrazioeko egitura batzuk erregulatzen dituzte, berdintasun-politikak sustatzeko eta koordinatzeko.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana ezartzeak honako aurrekontua eskatuko du:

- Emakundeko ohiko aurrekontua; izan ere, erakunde hori arduratu behar da berdintasunerako V. plana sustatzeaz, koordinatzeaz eta ebaluatzeaz.
- Sailetako ohiko aurrekontua, sailek beteko baitute berdintasunerako V. Plana. Beste aurrekontu mota bat egongo da sailentzako aurrekontuaren barruan, sortzen diren ekimen berrietarako.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Berdintasunerako V. planak zuzentarauak eta ildo orokorrak bilduko ditu, gobernuko sailek garatu behar dituzten berdintasun-programak egiteko. Beraz, sail guztiak hartzen ditu barruan, baita sailek berdintasunaren aurrean duten jarduera ere. Horretarako koordinazioa behar da, eta honako mekanismoen bidez egingo da:

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako sail arteko Batzordea; batzorde horrek Sail arteko Talde Teknikoaren (STT) laguntza eta aholkularitza jasoko ditu.
- Berdintasun Unitateak. Unitate horien ardura izango da saileko zuzendaritza eta arloetako sustapena, koordinazioa eta lankidetzak, eta, hala badagokio, erakunde autonomoetakoak, erakunde publikoetakoak eta sailean atxikitako organoetakoak ere.

e) Erakundeen harremanak:

Plana orokorra izateak eta botere publikoentzat zuzentarauak ezartzeko duen nahiak dakarte foru-erakundeek eta toki-erakundeek elkarlanean aritzea eta parte hartzea. Erakunde horiek Emakundeko Zuzendaritzako Kontseiluan ordezkaturik daude (2010eko urtarrilaren 11n osatu zen IX. Legegintzaldirako kontseilua), baita Sail arteko Batzordean ere (2010eko urtarrilaren 14an sortu zen IX. Legegintzaldikoa).

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

1. aldia. Erakundeei eta gizarteari galde egiteko epea: 2009ko urria-azaroa
2. aldia: Balioespen-politikorako epea: 2010eko urtarrila.
3. aldia: Herriari galdetzeko epea: 2010eko otsaila.
4. aldia: Plana egiteko epea (2009ko uztaila-2010eko martxoa).
5. aldia: Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2010eko ekaina.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

IX. Legegintzaldia, Gobernu Kontseiluak onartu ondoren (2010-2013)

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Berdintasunerako V. planak kudeaketa-eredu bat dauka, eta eredian jasotzen dira ebaluatze eta kudeatzeko mekanismoak (koordinazio eta parte-hartze gisa ulertuta). Era berean, planaren ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa neurtzeko adierazleak ditu.

Emakundek informazioa bilduko du, sailek –baita aldundiak eta udalak ere– plana betetzeko egin dituzten jardunak ebaluatze, eta planarekin zer neurritan egokitu diren neurtzeko. Halaber, hartutako neurrien eraginaren ebaluazioa egitea aurreikusi da.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

2009ko azken hiruhilekoan, Emakundeko Zuzendaritzak bilerak egin zituen gobernuko sail guztiekin, planeko ildo nagusiak helarazteko eta berdintasun esparruan sailek zituzten lehentasunak alderatzeko. Halaber, foru-aldundien eta udalen ekarpenak bildu dira.

Aurreikusi dutenez, Plana 2010eko bigarren hiruhilekoan aurkeztuko zaio Gobernu Kontseiluari.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Herritarrek parte handia izan dute, eta konpromisoz betea emakumeen elkartean aldetik. V. planaren alde aurreko egitura eta ekarpenak eskuratzeko metodologia aurkezteaz gain, web-orri bat jarri zuten martxan ekarpenak egiteko, dokumentuzkoak zein telefono bidezkoak izanik ere.

Ondoren, kontsulta-prozesua ireki zen, eta prozesuaren bidez 400 ekarpen baino gehiago bildu ziren. Ekarpenera horietatik planean sartu diren eta ez diren buruzko azalpen-txostena egin da, eta sozietateei helaraziko zaie.

2010eko otsailean kontsulta publikoko prozesua ireki zen, herritarren iritzia jasotzeko.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

2010eko otsailean berdintasunerako V. planaren zirriborroaren berri eman zitzaion herritarrei, eta parte-hartzeko bideak ezarri ziren honakoen bitartez: hedabideak, Irekia plataforma, informazioa posta arrunt edo elektronikoki bidez bidaltzea eta Emakundeko web-orria.

Plana onartu ondoren, hainbat jardun jarriko dira martxan haren berri emateko, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren komunikazio Planaren bitartez. Komunikazio-plana berdintasun planaren zati gisa aurkeztuko da ere.

2.- Bizikidetasun demokratikoa eta indarkeria deslegitimatzea, 2010/2011.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana Birformulatzea (2008/2011).

1. HELBURUAK.

Euskadiko herritarrak libreak izatea eta eskubide eta betebeharrak berdina izatea du helburu gogorak legegintzaldi honetan, eta helburu horiek gidatuko du jarduna. Sistema demokratikoa eta konstituzio-estatua defendatuta bakarrik lor daiteke helburu horiek bermatzea.

Demokrazian sakontzea eta tolerantziaren, pluraltasunaren eta gutxiengo politikoen defentsa funtsezkoak dira bizikidetasun demokratikoa bermatzeko.

Terrorismoak oraindik ere irautea herritarren askatasunari eraso zuzena da, herritarren iritzia librea ukatzeko modurik muturrekoa da. ETAren terrorismoarekin bukatzea funtsezkoa da askatasuna ezartzeko.

Terrorismoa politikoki, sozialki eta etikoki deslegitimatzea oso sakoneko kezka da, eta euskal gizartearen gehiengoak hala sentitzen du.

Gobernu honek terrorismoaren aurkako borroka sendotu du, eta horretarako elkarri osagarriak diren hiru esparru hartu ditu ardatz: terroristak jazartzea eta atxilotzea, zuzenbide-estatuak horretarako ematen dituen legezko bitarteko guztiak erabiliz, terrorismoaren bortizkeria babesten eta justifikatzen duten ideiak kritikatzeko eta horiei aurre egitea, eta balio demokratikoak sustatzea eta gizartean zabaltzea.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana 2008/2011 birformulatzeko beharra azaltzen dute premisa horiek. Plana lehengo legegintzaldian onartu zen, terrorismoaren bortizkeria deslegitimatze eta bizikidetasun demokratikoa sustatzeko. Indarrean dagoen planak fenomeno hori jasotzen du, baina planteamenduak ez ditu sinesgarritasun osoz azaltzen. Ez die erakunde demokratikoei erreferentzia egiten, eta ez du tolerantzia irmotasunez aldarrikatzen. Gainera, ez du guztiz sinisten terrorismoaren biktimen testimonioa lehen mailako elementu pedagogikoa dela, ezarritako helburuak lortzeko.

Beraz, berrikuspene planaren mamiraino heltzen da, helburuen definizioari zein ekimenen, jardunen eta baliabideen diseinuari dagokionez. Helburua lortzeko erabilgarri dena mantendu da, eta komenigarri dena egokitu da.

2. AURREKARIAK.

Lehendik ere Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana 2008/2011 edukitzea.

Gobernu honek egin duen eta lehendakariak adierazi duen apustu irmoa planaren birformulazioan agertzea, terrorismoaren indarkeria deslegitimatzeke. Horretarako, bizikidetasun demokratikoa aldarrikatuko da, eta tolerantziaren balioak eta politikako pluraltasun politikoa euskal herritarren artean sustatuko dira.

Legebiltzarraren aurrean Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuaren agerraldiaren edukia bideratzea. *Gobernuak plan hori birformulatuko du, planak sorrerako helburuak bete ditzan, eta, bereziki, terrorismoaren biktimen elkarteekin eta fundazioekin batera aritu dadin...*

Planean berrikuntzak sartuko ditugu, honako helburuekin: Gatazka bat ez izatea planaren justifikazioa Balioen heziketa sustatzea terrorismoaren aurako borrokaren zati izan behar da.

Euskadiko errealitatea planean inkardinatzea. Terrorismoaren biktimak aintzat hartzea. Plana gehiago garatu heziketa-esparruan.

Planaren birformulazioa hauteskunde-programan sartuta dago, terrorismoa deslegitimatzeke politika gisa, eta askatasuna eta bizikidetasuna eraiki eta finkatzeko tresna gisa.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Planaren burua lehendakaria da, eta, horrez gain, Lehendakaritza eta beste bost sail daude tartean: Kultura; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Lana eta Gizarte Gaiak; Herrizaingoa eta Justizia eta Administrazio Publikoa.

Planak sail arteko plangintza behar du: sinergiak bilatzea eta baliabideak optimizatzea izan behar du helburu, funtsezkoa eta oinarritzkoa den helburu baterako, bizikidetasun demokratikoa eta giza eskubideak sustatzea, alegia.

Esparru honi dagokionez, gobernuan sortu diren sinergiak sustatzea eta koordinatzea Lehendakaritzari esleitu zaio, gutxienez, oinarritzako alderdietan. Koordinazioko funtzio zehatzean, Sail arteko Batzordean zein Aholkularitza Kontseiluan, Justizia eta Administrazio Publikoa Sailaren laguntza jasoko du Lehendakaritzak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bidez.

Gainerako sailek beren eskumeneko diren jardunak sartuko dituzte planean, sailarekin lotuta dauden zuzendaritzen bitartez (Giza Eskubideak, Hezkuntzako Berrikuntza, Terrorismoko Biktimentzako Laguntza, Gaztedia eta Komunitateko Ekintza eta Immigrazioa).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Terrorismoaren biktimei buruz legebiltzarrak hartzen dituen erabakietan sartzen da plana, funtsezko eskakizun gisa; Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legean ere sartuta dago(9.3 artikulua).

Plan osoak giza eskubideen nazioarteko organismoek esparru honetan dituzten eskakizunak betetzen ditu.

b) Antolakuntza:

Bat ere ez.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Oraindik zehazteke dago aurrekontuaren zenbatekoa, baina hasierako aurrekontuan jaso ziren kopuruak gutxi aldatuko direla espero da.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Bakearen eta Giza Eskubideen Hezkuntzarako Sail arteko Batzordearen bidez koordinatzen da; batzorde hori planaren baitan sortu da, eta Lehendakaritza da horren buru; era berean, Justizia eta Administrazio Publikoko Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin elkarlanean jardungo da.

e) Erakundeen harremanak:

Gobernuaren plan bat da, eta foru- eta udal-erakundeekin koordinatzeko irekia da. Udalek Eudelen bidez egingo dute koordinazioa.

Bizikidetasun demokratikoaren, pluraltasunaren, tolerantziaren eta giza eskubideen aldeko garapena ekarriko duten jardun komunak sustatzea da helburua. Harremanetako esparrua aholkularitza-kontseilu baten inguruan egituratzen da. Organo horretan administrazio publikoek, gizarte-esparruko erakundeek, hedabideek, unibertsitateek... hartzen dute parte. Horrek balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatzen dituzten erakunde ezberdinek parte hartzea dakar.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (por trimestres) |
|-----------|---|------------------------------------|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoak prestatzea. | 2010eko 1. hiruhilekoa |
| 2. aldia | Plana egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 1. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 1. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 2. hiruhilekoa |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010/2011

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUATZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK

Plana kudeatu eta jarraitzeko eginkizunak Lehendakaritza izango du buru, eta Sail arteko Batzordea izango da horretarako organoa. Era berean, beste bost zuzendaritza egongo dira bertan sartuta: Giza Eskubideak, Hezkuntzako Berrikuntza, Gaztedia eta Ekintza Komunitarioa, Terrorismoaren Biktimentzako Laguntza eta Immigrazioa.

Sail arteko Batzordea Giza Eskubideen Zuzendaritzak koordinatuko du. Gainera, zuzendaritza horrek planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, baita batzordearen kudeaketa administratiboa ere.

Plana ebaluatzeko sistema mistoa izango da: sail bakoitzak bananako ebaluazioa egingo du, eta kanpoko erakunde batek ere. Lehenengo urteko ebaluazioa egingo da, eta, beharrezkoa izanez gero, doikuntzak egingo dira. Hala ere, konpromiso formala planaren indarraldiaren bukaeran etorriko da.

Planaren onura bizikidetasun demokratikoa sustatzea lortzea da; era beran, erakunde demokratikoak defendatu nahi ditu, baita tolerantziaren balioak eta pluralismo demokratikoa ere, oro har. Horrez gain, gizarteak terrorismoaren indarkeria gaitzestea lortu nahi du bereziki.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Planak erakunde artekoa izan nahi du, eta aldez aurreko kontatuak burutu dira foru- eta udal-erakundeen elkarlana edukitzeko. Udalek Eudel izango dute bitartekari.

Plana martxan jarrita (2010ek bigarren seihilekoa), erakunde horien parte-hartzea Kontsulta Kontseilura bideratuko da.

Erakunde publikoetz gain, parte-hartze eta kontsulta-organo horretan beste erakunde batzuek dihardute:

- Pluralismoa, balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatuko dituzten Elkarteen Foroa (gizarte zibila/biktimak).
- Eskola-kontseilua
- Gaztediaren Kontseilua.
- Arartekoa.
- Eitb.
- Unibertsitateak.
- Hedabideak

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Plana aurrera ateratzeak intereseko taldeek ekarpenak egitea eskatzen du, eta honakoak azpimarratuko ditugu: pluraltasuna, balio demokratikoak eta giza eskubideak sustatuko

dituzten elkarteak, terrorismoaren biktimen elkarteak, gaian aditu diren unibertsitate-kideak, eskola-kontseilua.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Plan honek herritarrekin harremanetan jartzeko dituen tresnak hauek izango dira: aurkezpen publikoak, jakinarazpen bereziak esparru jakinetan (hezkuntza, gizartea...), hedabideetan agertzea eta *Irekian* agertzea (Irekia EJRen lanabesa da, herritarren parte-hartzerako).

3.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015

1. HELBURUAK.

Eredu ekonomiko-ekoizle-industrialaren beharrez, sail arteko plan bat egitea ezagutzaren ekonomia oinarri duen eredu baten aldeko apustu irmoaren adierazle izan behar da, hori baita Eusko Jaurlaritzaren apustua; ekoizpen jarduna gutxietsi gabe industriaren espazio berriak finkatzeko aukera ekarriko du horrek.

Egungo krisialditik ateratzear gaude, eta berriki transferitu da hizpide dugun gaiaren eskumena. Bi alderdi horiek aintzat hartuta, EAEk etengabeko aldaketak izango ditu hurrengo urteetan, eta aldaketok hainbat aukera ekarriko dizkiote; alde batetik Europako ekonomiaren lehen lerroan kokatzea, eta, horretarako, produktu eta ekoizpen-prozesu berriak sortu beharko ditu, *teknologia propio* bihurtutako ezagutza erabilia. Bestalde, berrikuntzako sare globaletan parte hartzen duen eskualde gisa kokatzea, berrikuntza irekiaren kontzeptua laneko oinarri hartuta. Nazioartean behar diren eragile berritzaileekin lankidetzan arituko da, eta ezagutza sortzeko katearen elementu bakoitzean aktiboki hartuko du parte.

Hauek dira helburu nagusiak:

- Euskal gizartea iraunkortasunean, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritzen den gizarte bihurtzea, eta gizarte aurreratuenekin parekatzeko modukoa izatea.
- Egungo eredu garatuko da: eredu produktibo iraunkor eta intentsibo bihurtuko da, eta eduki zientifiko-teknologiko handia izango du. Era berean, kanpoko ezagutza berritzailea ezagutzeaz gain, ezagutza berria sortzea izango du helburu.
- Industriako aplikazio berritzaileak bilatzea, eragileen eta industrien arteko ezagutzaren loturak eta mugikortasuna abiapuntu hartuta; gure egungo industriak indartzea eta hurrengo hamarkadako industria-sarea marraztea eta finkatzea esparru berrietan (biozientziak, nanoteknologia, energia berriztagarriak..), eta EAEko enpresek I+G+bn egiten duten inbertsioa sustatzea. Inbertsio horrek joera hazkorra dauka.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean dauden agente guztien arteko lotura egoki bideratzea, ahal diren sinergia gehien aprobetxatzeko, eta eskura dauden baliabideak eraginkor eta efiziente kudeatzeko.
- Aipatutako aldaketen protagonista izango diren zientzialariak, teknologoak eta ekintzaileak prestatzea, hemen geratzen direla ziurtatzea eta berriak erakartzea. Pertsonen eta beren dohainaren aldeko apustu irmoa, I+G+bko jardunak profesionalki garatu nahi dituztenentzat benetako karrera bihurtuta.
- Garapen zientifikoak eta teknologikoak eskatzen duten azpiegiturak eta ekipazio handiak erostea eta martxan jartzea, programa efizienteak koordinatuz eta gauzak birritan egitea saihestuz.
- EAEko I+G+brekin lotuta dauden agenteen produkzio zientifiko eta tekniko kantitatean eta kalitatean handitzea, eta I+G+b bultzatzen duten programa publikoen emaitzetara orientatzea.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko nazioartekotzea sustatzea, eta, ondorioz, euskal produkzio-sistema ere sustatzea.
- I+G+bren kudeaketa nabarmenki hobetzea, esparru horretako agente aktibo guztietan.
- Gizartea berrikuntzarako prestatzea; hau da, aldaketarako prest eta aldaketak sortzeko prest.

2. AURREKARIAK.

Plangintzari dagokionez,

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2001-2004.
- Euskal Berrikuntza-sistemaren Liburu Zuria. 2010 Muga- Diagnostika eta Zuzentarauak.
- 2006-2009ko Enpresen Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Plana (ELGBP)
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana 2010.
- Produkzioa eraldatzea eta berrikuntza abiatzea. Jarraipen-txostena 2006/07
- 2011/2011 Unibertsitate Plana

IX. Legegintzaldiko hauteskunde-programak Euskadiko I+G+b artikulatzeko behar berezia aipatzen du. I+G+b plan nazionalaren barruan eta Europako esparruen barruan garatzen da, eta, horretarako, EJko sail guztien jardun lerroak koordinatzeko beharra dago. Programa horretan aipatzen da ikerketa eta enpresa lotzeko beharra ere.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

- Lehendakaritza: Lidergo funtzioa beteko du, gizarteko eragileek betetzen duren lanagatik zein barruko koordinaziogatik. Koordinatu beharreko ekintzak Zientzia eta Teknologiako Euskal Kontseiluaren bitartez burutuko dira; izan ere, kontseilua sail horretan atxikita dago.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Saileko lerro estrategikoak definitzeko aditu-batzordea egoteaz gain, sailak plana eratu zein gauzatzeko esleitzen zaizkion jardunak burutuko ditu.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila: Bere lana da gizartean balioa sortzea, teknologia berriak garatuz eta ekoizpen sarean sartuz. Lerro estrategikoak eta programak sustatzea eta kudeatzea, oinarri zientifiko-teknikoa duten industriako I+G+b proiektuak gauzatzeko. ZTBESeko agenteak koordinatzea, eta, bereziki, enpresetako I+G unitateak, korporazioak eta teknologia zentroak, ikerkuntzako kooperatiba-zentroak (IKZ), klusterrak, industriak elkarteak eta berrikuntzako bitarteko erakundeak.
- Ekonomia eta Ogasun Saila: Sail honek parte hartu behar du, planaren konpromiso ekonomikoak direla eta: plan berriaren programa eta jardunen finantzaketarako, zein planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, sailaren eskumenen barru, noski.
- Kultura Saila: *Sorkuntza kulturalerako fabrikak* deitzen den jarduna diseinatu du, sorkuntza eta berrikuntza-kulturaren esparruan lotzeko. Talentu berri ikerketarako toki berriak irekitzea eta egiteko modu berriak abiatzea, esperientzia eta mintzaira heterodoxo gazteak nahastea, joerak ekar litzaketan abangoardiei aukerak emanez.
- I+G+b politikak gobernuko ia sail guztiei eragiten diete, baina ZTBES plan berria eratzean politika mota horiekin gertuko lotura dute jardunak dituzten sailak hartu

behar dira kontutan. Beraz, Osasuna eta Kontsumoa, Nekazaritza, Ingurumena, Lurralde Politika eta Arrantza sailek aktiboki eta konpromisoz hartu behar dute parte.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

I+G eta berrikuntza laguntzeko programak arautuko dituzten dekretuak onartzea; dekretuak planetik sortuko dira. Era berean, dekretuak ekintza zehatz bihurtzea.

b) Antolakuntza:

I+G+i eskumenak transferitu arte, Eusko Jaurlaritzak ikerketa zientifikoko eta teknologikoko berezko politikak izan ditu, eta horrek ahalbidetu du hainbat eragileko sarea edukitzea eta I+Gko inbertsioa Europakoa baino %1,96koa izatea BPGrekiko; hala ere, kopuruak urrun daude Europan ezarri diren erreferentziatzko herrialde eta eskualdeetakoekin alderatuta; izan ere, % 3,0koa da (Lisboako Ituna).

Agente horien eskumenak, ekintzak eta finantzazio publikoa hainbat sailetatik kudeatzen da: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa, Nekazaritza, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Arrantza eta Osasuna eta Kontsumoa. Horiei agentziak, enteak, sozietate publikoak eta para-publikoak gehitu behar zaizkio, halako lanetan hartzen baitute parte (Ikerbasque, SPRI, Ihobe SA, Innobasque, EVE...); foru-aldundiak ere hartu behar dira kontutan.

Aurreko legegintzaldian Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua sortu zen, baita Berrikuntzarako Funtsa ere, eta sorrera horiek sailen arteko akordioen gaineko koordinazioa sortzeko esfortzua ekarri zuten.

Egungo gobernuak diseinu osoagoa planteatu behar du, eta ZTBSn konkretatuko da. Gobernu barruko koordinazio-maila egokia izan beharko da, baita euskal I+G+b sistemako eragile adierazgarrienena ere.

Horretarako koordinazio maila bikoitza proposatu da:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua, kontseilua sortzen duen apirilaren 17ko 1/2007ko Dekretuko 5. artikulua ematen dizkion funtzioak betez.
- Sail arteko Batzordea 2015 ZTBSren zabalkundea eta jarraipena egiteko.

Eusko Jaurlaritzak benetako politika zientifikoa eta teknologikoa edukitzea da helburua: integratua eta indartsua (ez dadila izan hainbat politika gainjartzea). Era berean, eskura dauden baliabideak ondo aprobeztatu behar dira, XXI. mendeko Euskadi ezaguna izan dadin daukan gaitasun lehiakorragatik eta industria berrituagatik, baita ikerketan, garapenean, eta berrikuntzan bikaina izategatik ere. Azken batean, hazkunde-patroi berriari eusteko oinarriak edukitzeagatik.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Abiapuntua ZTBS'10en lortutako aurrekontu hitzarmena izango da. Hitzarmen hori EAEko Administrazio Publikoen Inbertsio Orokorretan eta Eusko Jaurlaritzakoetan jasota dago bereziki.

ZTBSrekin mugitzen diren baliabideek I+G+bn EAEn egiten den inbertsioa aintzat hartzen dute, eta 2012 urtean BPGren % 2,5 izatea espero da (Legegintzaldiaren bukaera). 2015ean % 3,0 izatea espero da.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Lehen aipautako beste sailetatik abiatutako jardunetan berdin-berdin aplikatuko da lana, eta Zientzia eta Berrikuntza Kontseilutik koordinatuko da.

PESI (Euskadi Informazioaren Gizartean Plana), Enpresen Lehiakortasunerako Plana, ingurumeneko beste plan batzuk, hala nola , Nekazaritza-sektorearen Lehiakortasunerako Euskal Plana.

c) Erakundeen harremanak:

- Estatuko Administrazio Orokorra
- Foru-aldundiak.
- Enpresaburu-antolakundeak
- Klusterra.
- Enpresak
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
- Unibertsitateak...

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|--------------------------------|
| 1. aldia: | Ildo estrategikoen dokumentua. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 2. fasea | Plana behin betiko egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta, hala badagokio, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 3. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 4. hiruhilabetea. |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2015.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUATZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Plana definitzeko, eztabaidatzeko eta onartzeko prozesuan, egoki definitu beharko dira agintze-koadroa eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko formula espezifikoak.

Hala ere, aurretik dagoen esperientzian oinarrituz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera, Lehendakaritzak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak hartu beharko dute parte.

Gutxienez, bi txosten forma proposatu dira:

- ZTBS betetzeari buruzko urteko txostena, aginte-koadroarekin bateratuta. Txosten hori Zientzia eta Berrikuntza Ministeriora bidaltzen da.
- Jarraipen-txostenak

Era berean, batzorde espezifikoak mantenduko dira, urteroko programa-kontratuen jarraipenerako eta Azpiegituren eta Ekipazioen Planaren hiruhileko jarraipenerako.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Erakunde arteko elkarlana egongo da plan berria definitu aurretik. Funtzio hori betetzeko nahiko izan daitezkeen hiru organo identifikatu dira, eta lehendik ere existitzen dira:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseilua
- Zientzia eta Teknologiaren Kontseilu Orokorra (Zientzia eta Teknologiako ministerio arteko Batzordea).
- Estatuko administrazio orokorreko erakunde arteko batzordea datuak elkartrukatzeko.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Planaren eraketa parte-hartzailea eta elkarlanean egindako jardunak.

Intereseko talde nagusiak:

- *Enpresak eta enpresa taldeak
- *Klusterrak.
- *ZTBESko agenteak, unibertsitateak barne; IKZak, teknologia zentroak eta beren korporazioak; enpresetako I+G+b unitateak; Berrikuntzako erdi-mailako erakundeak.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA.

Plana I+G+bko euskal sistemako agente guztien, politikarien eta aurreko ataletan aipatutako gizarte eragileen artean zabalduko da planaren aurreproiektua. Ondoren, proiektua osatuko da. eztabaidatzeko, eta, hala badagokio, EAEko Gobernu Kontseiluako onartzeko.

Plana onartu ondoren, haren berri emateko kanpaina egingo da, eta arreta berezia jarriko da

garrantzia duten eragile sozialetan eta ekonomikoetan eta komunitateetan. Era berean, azalpen zabalak emango zaizkie (dibulgaziokoak) hezkuntza sistemaren eta I+G+b sistemako gainerakoei eta gizarteari, oro har.

HERRIZAINGO SAILA

4.- Gobernuaren Ekintza Plana Genero Indarkeriaren Aurka

1.- HELBURUAK

Plan honen helburua da ezartzea emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zuzenduko dituen jardunak eta neurriak. Era beran, autonomia-erkidegoko administrazio orokorreko zerbitzuei laguntzeko sarea osatzeko asmoa du, zerbitzu horiek eraginkorrakoak izan eta herritarrengandik gertuago egon daitezen. Halaber, indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak aitortu nahi ditu.

2.- AURREKARIAK.

Genero indarkeria gure garaiko gaitz okerrenetakoa da. Emakumeek egunero eta sistematikoki, munduko toki guztietan, pairatzen duten diskriminazioaren eta berdintasun ezaren adierazpen ankerra da, eta, ziurrenik, gehien jazotzen den giza eskubideen urraketa da, eta munduan pertsona kopuru handienari eragiten diona, eta guztia emakume izateagatik soilik.

NBEk 1993ko abenduaren 20an onartu zuen Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Aitorpena, eta honela definitu zuen emakumeen aurkako indarkeria: *emakumezko izatea oinarri duen edozein indarkeria, edo emakumei kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragin diezaikeena. Horren barruan hartzen dira aipatutako ekintza horien mehatxuak, derrigortzea edo arbitrarioki askatasuna kentzea, bide publikoan zein pribatuan gertatuta ere.*

Testuinguru horren baita, gobernuak erabaki du emakumeen aurkako indarkeriak beste edozein indarkeriak erakundeetatik jasotzen duen laguntza bera merezi duela, eta hori agerian geratu zen lehendakariaren inbestidura saioan. Izan ere, lehendakariak gobernuko lehentasun gisa azaldu zuen emakumeen aurkako indarkeria. Lehendakariak aurreratu zuen zuzendaritza berezi bat sortuko zela Herrizaingo Sailean lan horretarako.

Ildo berean, Herrizaingoko sailburuak bere sailaren ildo nagusiak Legebiltzarrean aurkeztu zituenean, jardun nabarmenen artean Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzea aipatu zuen.

3.- TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK

Egungo legegintzaldira bitartean, genero indarkeriaren biktimentzako arretarako eskumenak gobernuko hainbat sailen artean banatuta zeuden. Gainera, ez zegoen organorik esparru horretako politika zentralizatzeko eta ordenatzeko eta emakumeen eskaerak bideratzeko.

Gobernuak lehentasuna eman dio politika berezi, integral eta bakar bat sortzeari, eta Herrizaingo Sailean kokatu du honako dekretuaren bidez: 4/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen

Jardun esparru berri hori Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren bidez gauzatu da, eta horretarako zuzendaritza berri bat sortu da: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Arauak:

-Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza Integrala emateko lege-proiektua.
-Dekretu bidez honako araupetzea aurreikusi dute:

- Leiho bakarra sortzea.
- Genero indarkeriaren behatokia sortzea.
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 58.4 artikulua garatzea.

-Agindu bidez honako laguntza ekonomikoak arautuko dira:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza ekonomikoak, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren, genero-indarkeriaren aurka babes integrala ematekoaren 27. artikuluan aurreikusitakoa.
- Genero indarkeriaren biktimei arreta, elkartasuna eta laguntza ematea sustatzen duten elkarreentzako laguntza.

b) Antolakuntza:

Arlo honetan eskura dauden baliabideak gobernuko hainbat sailetan barreiatuta daude, egoki zaien esparruaren arabera. Indarkeria jasaten duten emakumeen eskaera zentralizatu, biktimentzako espediente bakarra izan, biktimizazio bikoitz gisa har litekeena saihestu eta arlo horretako politika koordinatzeko, zuzendaritza gobernuaren leihatila bakar gisa jardungo da.

Gobernuaren zerbitzu hori erabiltzen duten emakumeen kexak eta iradokizunak edo hobetzeko proposamenak ere zuzendaritza honen bitartez bideratuko dira dagokion sailera.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Plana gauzatzeko dirua EAEko aurrekontu orokorretan jasotakoa izango da, eta ez da finantzazio gehigarririk aurreikusi.

2010ea 1.404.795 € gastatzea aurreikusi da.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak.

- Justizia eta Herri Administrazioa.
- Enplegua eta Gizarte Gaiak.
- Osasuna eta Kontsumoa.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza aipatutako sailekin elkarlanean arituko da: erabiltzaileen eskutik heltzen diren eskaerak, kexak, iradokizunak eta bestelakoak bideratuko ditu.

Koordinazioari dagokionez, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ikuskatuko ditu genero indarkeriaren biktimei laguntzeko eta indarkeria prebenitzeko autonomia-erkidegoko administrazio orokorrean martxan jartzen diren programak eta proiektuak. Jardun horretarako koordinazio-akordioak egingo dira tartean diren erakundeekin (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza; Emakunde; Justizia eta Herri Administrazioa; Enplegu eta Gizarte Gaiak; Osasuna; Hezkuntza; Etxebizitza; Kultura –Gaztedi eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritza- eta Ertzaintza), baita leiho bakarra sortuko duen dekretuan aurreikusitako jarraipen batzordearekin ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. EAEko Planari dagokionez, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Emakundek beharrezko koordinazio-ekintzak ezarriko dituzte, lankidetzaren protokolo baten bidez, bakoitzaren planetan ezarritako helburuak osagarriak izan daitezzen eta bat etor daitezzen.

e) Erakundeen harremanak:

Erakundeekin lankidetzaren hitzarmenak eta –protokoloak sinatzea genero indarkeriaren aurkako borrokan diharduten erakundeekin, publikoak zein pribatuak.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|--------------------------------|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoen eta ekonomikoen dokumentua. | 2010eko 1. seihilekoa. |
| 2. aldia | Plana behin betiko egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta, hala badagokio, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 1. seihilekoa. |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 2. seihilekoa. |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 2. seihilekoa. |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010/2013.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUATZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK

Leiho bakar hori arautuko duen dekretuan (Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta tartean diren sailek egingo dute) ezarriko da jarduteko modua, eta jarraipen-batzordea bat osatzea aurreikusi da. Horretarako tartean diren sail bakoitzeko zuzendariak elkartuko dira.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Erakunde eta administrazio publikoen artean genero indarkeria prebenitzeko programa integralak egingo dira, eta biktimei laguntza eman. Hori koordinatzeko tratu txarren eta sexu-erasoen jarraipen batzordea egongo da: *Erakunde arteko II akordioa etxeko indarkeria eta sexu indarkeria jasaten duten emakumeentzako arreta hobetzeko*. Genero indarkeriako beste mota batzuetan beste formula batzuk erabiliko dira.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Plana gauzatzean, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eta laguntza emateko jarduna burutzen duten elkarte eta erakunde guztiek hartuko dute parte, baita genero indarkeriaren adierazpen guztiak ezabatzeko borrokan ari diren erakunde guztiak ere, jardun horretarako sortuko diren lan-taldeen bitartez.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Plana EAEn zabalduko da, eta, zehazki, erakundeetan, elkarteetan eta genero indarkeria desagerrarazteko borrokan diharduten bestelako erakundeetan.

Plana zuzendaritako web-orriaren bidez, Irekiaren bidez eta egoki irizten diren beste bitartekoen bidez zabalduko da (prentsa, posta arrunta, etab.).

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5.- 2011-2014 Unibertsitate Plana

1. HELBURUAK.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak tresna berezizat jotzen du Unibertsitate Plana, euskal unibertsitate-sistema antolatzeko gobernuak onartutakoa.

Hauek dira helburu nagusiak:

- EAEko unibertsitateko irakaskuntzaren egoera ebaluatzea.
- Irakaskuntza horren beharrak zehaztea.
- Euskal unibertsitate sistemaren helburuak eta lehentasunak ezartzea.
- EHUrentzat nahikoa izango den finantzaketa-eredua bermatzea, helburuak bete ditzan eta haren jardun guztien kalitatea hobe dezan.
- EAEntzat interes estrategikoa duten esparruak zehaztea, eta programa-kontratu bidez hornitzea.

2. AURREKARIAK.

2011-2014 Unibertsitate Planak honakoak ditu aurrekari gisa: lehen unibertsitate plana (2000-2003), 2004-2006 urteen bitartean EHUrekin, Deustorekin eta Mondragonekin sinatutako programa-kontratuak, eta egun indarrean dagoen unibertsitate plana (2007-2010). EAEko unibertsitateekin sinatutako kontratuak.

Bestalde, 2011-2014 eperako unibertsitate plan berri bat egitea PSEren hauteskunde-programan zegoen, eta, era berean, lehendakariak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuak plana osatzeko konpromisoa hartu zuten Legebiltzarraren aurrean.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Oro har, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, goi-mailako hezkuntzako eta unibertsitate-heziketako eskumenak dituelako.

Ekonomia eta Ogasun Sailak ere parte hartu beharko du, planak dituen konpromiso ekonomikoengatik, EHUko ohiko jarduna finantzatzeko zein programa-kontratuatarako edo EHUrekin, euskal sistemako beste unibertsitateekin eta goi-mailako ikasketak eskaintzen dituzten EAEko beste erakundeekin hitzartuta dituen diru-laguntzetarako.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak euskal unibertsitate sistemak eskainiko dituen tituluak definitzen lagundu behar du, lan merkatuak egun dituen eta etorkizunean izango eskaeren eta nahien arabera.

Esparru biosanitarioan irakaskuntzak eta ikerketak garatu izana Osasun eta Kontsumo Sailaren laguntza eskatzen du, euskal osasun sistemak esparru horretako heziketa jasotzen duten ikasleen prestakuntzan parte hartzen baitu. Gainera, euskal osasun sistemak hartzen ditu da esparru horietako graduak eskuratzen dituzten profesional gehienak.

Kultura Sailaren jardun nagusia Arte Eszenikoen Goi-mailako Zentroaren ingurukoa da, baita kulturaren arloan I+G+b aplikatzearen inguruan ere.

EAEko ekoizpen zientifikoan eta teknologikoan EHUK eta beste unibertsitateek (neurri txikiagoan) duten garrantzia dela eta, unibertsitate planak unibertsitateko I+G+b-ren helburuak eta lehentasunezko ildoak definitu behar ditu, zientzia, teknologia eta berrikuntza euskal sistemako helburuekin, ildoekin eta jardunekin bat. Horregatik, esparru honetan beharrezkoa da koordinazio-maila egokia eskuratzea sisteman aktiboki parte hartzen duten sailekin: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa; Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza, Osasuna eta Kontsumoa, etab. Baita ZTB sistema horretan lehendakariak duen lidergoaren ekarpena ere.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 67. artikulua tresna berezizat jotzen du Unibertsitate Plana, euskal unibertsitate sistema antolatzekeo gobernuak onartutakoa.

b) Antolakuntza:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate Zuzendaritzak plan hau kudeatzeko gainditu behar dituen konplexutasunak direla eta, bi plaza berri sortu behar direla agerian geratu da.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Plan hau burutzeko, kanpoko laguntza egongo da eskuragarri aldi guztietan, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren finantziarioa jasoko du.

Plana finantzatzeko unibertsitateek ikasleen matrikuletatik jasotako dirua, zerbitzuen salmentakoa (ikerketa, laguntza teknikoa, ikastaro bereziak, etab), eta esleitutako diru-laguntza publiko eta pribatuak erabiliko dira. Beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuaren zati gisa agertu beharko dira unibertsitate publikoa egoki funtzionatzea ahalbidetzen duten diru-laguntza publikoak, planean jasotako programa-kontratuak finantzatzeko hiru euskal unibertsitateek adostutako zenbatekoak, baita honakoak finantzatzeko bestelako diru-laguntzak ere: UNIQUAL, UNEDeko Bergarako, Gasteizko eta Portugaleteko ordezkariak, eta EAE dauden goi-mailako beste eskaintzak (Lea-Artibai, IMH, etab.)

2007-2011 unibertsitate planak 1.271.721.808 €ko aurrekontua aurreikusi du, eta unibertsitateen eta urteen arabera banatzen dira. EHUK 1.248.421.808 € jasoko ditu, eta Deustok eta Mondragonek 11.650.000 € bakoitzak.

Egun dauden arazo ekonomikoek aurrekontuak handitzea mugatzen du, baina unibertsitate-sistemak euskal gizartearen etorkizunean duen garrantziak justifika dezake 2011 urterako ez dela 2010erako onartutako baino finantzazio murriztagoa egongo. 2012 eta 2014 artean unibertsitatera bideratutako baliabide publikoen hazkundera onartu beharko da, herrialde garatuenetako finantzaketa-mailekin bateratzeko; izan ere, horiekin lehiatzea da helburua.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Planaren eraketa eta haren gauzatzea, bereziki, gobernuko beste sailen laguntza eskatuko du, baita Lehendakarietzako sustapen estrategikoa ere.

e) Erakundeen harremanak:

Unibertsitate plana egoki definitzeko beste autonomia-erkidegoetako plan baliokideekin koordinazio handia izan behar da, eta, bereziki Hezkuntza Ministerioko Unibertsitate Zuzendaritza Orokorreko eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko Ikerketa Estatu Idazkaritzako planekin jardunekin.

Ekintza batzuk garatzeko, bereziki azpiegiturekin eta ekipazioekin lotutakoak, oso interesgarria da gobernuaren eta foru aldundien artean adostutako ekintza, euskal unibertsitate sistemaren alde.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

- Ildo estrategikoen dokumentua.: 2010eko 1. hiruhilekoa
- Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2010eko 3. hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

Plan hau indarrean egongo den urteetako aurrekontuak egiteko planaren bidez onartutako finantzaketa konpromisoak izan behar dira kontuan, eta horrek nahitaez dakar plana 2010eko hirugarren hiruhilekoan onartuta egon behar izatea, 2011ko aurrekontuak egitean kontuan hartu ahal izateko.

Plana eratzeko prozesua 2010eko urtarrilean hasi zen, eta, aurreikuspenen arabera, 2010eko uztailean aurkeztuko da Gobernu Kontseiluaren aurrean, onartzeko.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK

Plana definitzeko, eztabaidatzeko eta onartzeko prozesuan, egoki definitu beharko dira aginte-koadroa eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko formula espezifikoak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz gain, aipatutako azken lan horietan Ekonomia eta Ogasun Sailak ere parte hartu beharko du. Era berean, batzorde espezifikoak mantenduko dira, urteroko programa-kontratuen jarraipenerako eta Azpiegituren eta Ekipazioen Planaren hiruhileko jarraipenerako.

Planean aurreikusi diren esku-hartzeek honako helburuak lortzen eragina izango dutelako ustea dago: euskal unibertsitate-sistema Goi-mailako Europako Hezkuntza Espazioarekin ondo egokitzea, irakaskuntza-eskaintzaren kalitatea hobetzea, euskal unibertsitateen sistema nazioartekotzea, euskal unibertsitate sisteman hizkuntza normalizazioa bukatzea, ikerketa-jarduna kalitatean eta kantitatean hobetzea, talentuak antzematea, prestatzea eta unibertsitate-ikerketaren eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Ikerketa sistemaren garapenaren zerbitzura jardun dezaten lortzea.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Erakunde arteko elkarlana egongo da plan berria definitzeko prozesutik bertatik. Beraz, plana Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren zuzendaritzapean ari da diseinatzen, baina EAEko hiru unibertsitateetako ordezkarien Batzorde Betearazlearen laguntzarekin (EHUko bi, DUko bat eta MUko bat).

Eraketako lehen aldia bukatu ondoren, lan-taldeak osatzea aurreikusi da, eta talde horietan unibertsitateetako ordezkariak sartuko dira, baita EAEn dauden goi-mailako beste irakaskuntzen ordezkariak, gobernuko beste sailtako ordezkariak eta foru-aldundietako eta I+G+b zentroetako ordezkariak ere.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

EHUko Kontseilu Sozialaren eta beste bi unibertsitateetan kontseilu horren baliokide diren organoen bidez, eragile sozial adierazgarrien parte-hartzea bermatuko da: enpresa-konfederazioak, sindikatuak, elkargo profesionalak, etab.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Dokumentu honen aurreko ataletan aipatu ditugun unibertsitate-eragile, politikari eta gizarte-eragileei planaren aurreproiektua helarazi ondoren, eztabaidatu beharreko proiektua sortuko da. Plana onartu ondoren haren berri emateko kanpaina egingo da, eta arreta berezia jarriko da garrantzia duten eragile sozialetan eta ekonomikoetan eta EAEko hiru unibertsitateen komunitateetan. Era berean, azalpen zabalak emango zaizkie, dibulgaziokoak, hezkuntza sistemaren gainerakoei eta gizarteari, oro har.

6.- Lanbide Heziketako EAeko III. Plana, 2011/2014.

1. HELBURUAK.

- 1) Etengabeko prestakuntza eta mugikortasuna egi bilakatzea lanbide-heziketan.
- 2) Lanbide-heziketan hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
- 3) Lanbide-heziketan berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea, eta herritarrak aktibo mantentzea.
- 4) Lanbide-heziketan sormena eta berrikuntza sustatzea, baita enpresa-espiritua ere.

2. AURREKARIAK.

Zuzeneko aurrekaria da LHko II Euskal Plana, 2004-2007. Horren aurretik, 1997an, *Lanbide Heziketako Euskal Plana-Lanbidez* onartu zen.

Aurreko plan horiek eta egungoa osatzean, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu eta arautzen duen otsailaren 22ko 100/1994 Dekretua hartzen da abiapuntutzat. Dekretu horren bidez aipatutako kontseiluari honako eginkizuna ezarri zitzaion: *Euskal Autonomia Elkarte*ko Lanbide Heziketaren Plan Orokorra landu behar du lege-aginduz, *Jaurlaritzak onarpena eman diezaion*.

Heziketa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak plana egiten ari zirela adierazi zuen, bere sailak legegintzaldi honetan jarraituko zuen politikaren eta burutuko zituen jardunen berri emateko 2009ko ekaiaren 10ean Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean egin zuen agerraldian.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza).

Plan hau egiteko eta ezartzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren parte-hartzea handia behar da, sail horren organoen bitartez zuzenean izan, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokiaren bitartez izan (martxoaren 3ko 34/1998 Dekretua).

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Arauak:

Planaren helburu da arauak ezartzea, gehien bat planean bertan jasotako sustapen-politikak artikulatzeko. Era berean, *profesionalen gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko zerbitzua sendotzeko* araudiak beharko dira, eta lanbide heziketan sakontzeko. Horren bidez bizitza sozialean,

kulturan eta ekonomian aktiboki parte hartzea sustatuko da; alegia, herritarren parte-hartzea sustatuko da, oro har.

Bestalde, IX. Legegintzaldiko Egutegian aurreikusi da etengabeko ikasketen lege-proiektuaren eragina izan lezake planak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari agindu zaio lan hori), eta proiektu horretan lanbide-heziketarekin lotutako oinarrizko kontzeptuak gehituko lekizkioke.

Lotura zuzena duelako, planak Enpleguaren Euskal Legearen eragina izan dezake (Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari agindutako). Proiektu hori ere IX. Legegintzaldiko Egutegian aurreikusita dago.

b) Antolakuntza:

Lanbide Heziketako III. Plana osatzearekin batera, eta plan horretan jasota, Lanbide Heziketako Sistema Integratua eta egitura administratibo bat sustatzea aurreikusi da. Administrazioeko egitura horren bidez laneko esperientziarekin edo prestakuntzako bide ez-formalekin eskuratutako gaitasunak ebaluatzea eta artikulatzea indartzeko.

Erakunde hori sortzeak egun dagoen Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzian izango du eragina, baita Lanbide Kualifikazioen Euskal Erakundearen ere (ekainaren 23ko 119/1998ko Dekretua).

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Plana gauzatzeko aurrekontu arrunta erabiliko da. Hala ere, ezohiko finantzazioa erabiltzea ez da baztertu, eta, hala gertatuz gero, ezarrita dauden legezko ildoak jarraituz bideratuko da.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Beste sail batzuek garatutako neurriak ezagutu eta integratuko dira, bereziki Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan integratutakoak, eta, azken kasu horietan, bide horrek ematen dituen aukeretan sakonduko da.

Koordinazio hori bateragarria da Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren laguntza kualifikatuarekin. Era beran, hainbat esparrutako ekoizpeneko eta ezagutzako ardura duten sailekin zuzenean lankidetzan aritzeko beharra dago (nagusiki hauek: Industria, Merkataritza eta Turismo Saila eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Era berean, kontuan hartuko dira Osasun eta Kontsumo Saila eta Kultura Saila ere.

e) Erakundeen harremanak:

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren ezarpenen harira estatuko administrazioeko organoekiko harremanen baitan hartutako erabakiak eta neurriak kontuan hartuko dira.

Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak sail arteko harremanetarako esparrua osatzen du, eta, gainera, foru-erakundeekin, ekonomiako eragileekin (enpresetako eta sindikatu

ordezkariak) eta irakaskuntzarekin (ikastetxe publiko eta pribatuak) harremanak bideratzeko tresna da.

Euskadin egoitzak dituzten unibertsitateekin eta udalekin harreman-esparrua osatzea komenigarria da, erakunde horiek deskribatu ditugun helburuekin bateratu daitezkeen jardunak egiten dituztelako eta horiek hobeto ezagutzeko.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|------------------------------------|--|
| 1. aldia: | LHko III. Euskal Plana egitea | 2010eko 3. hiruhilekoa |
| 2. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 4. hiruhilekoa. |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011-2014

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Aldi horietako bakoitzari neurria hartzeko ebaluazio bat egitearen kaltetan izan gabe, komeniko litzateke planari ex post ebaluazio bat egitea, baita plana noraino bete den adieraztea ere. Horrela, etorkizunean hartu beharreko neurrien berri jakiterik egongo da.

Jarraipenerako eta ebaluaziorako metodoa:

Horretarako Europako lankidetzeta-metodoa erabiliko da, baita hezkuntzako eta prestakuntzako 2020 Estrategiaren baitan ezarritako zikloak ere Hau egingo da:

- Erreferentziatzko adierazleak eta markak, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Adierazleak bat etorri beharko dira Europako hezkuntzako eta prestakuntzako adierazleekin.
- Helburuekin lotuta ezarri diren ekintza-jardunen kronograma.
- Aurrekoaren jarraipena: helburutik desbideratu izana detektatzea, eta prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak ezartzea, helburuak ez badira bete.

Jarraipena eta ex post ebaluazioa Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren sustapen pean egingo dira, eta oinarri gisa erabiliko da kalitatea kudeatzeko ISO 9001:2000 sistema (ezarrita dago). Era berean, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren esku-hartzea izango da. Jarraipena optimizatzeko metodo bat ezarriko da, eta, horretarako, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokiak garatutako lana baliatuko da (martxoaren 3ko 34/1998 Dekretua).

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Estatu mailan lankidetzan aritzeko legez gaitu diren bideak erabiliko dira, eta lankidetzan parte hartzen duten erakundeek beren eskumenen esparruan egindako esfortzuak optimizatzea izango da helburua.

Foru-erakundeekin egingo den lankidetzan (4 zenbakiko e atala) Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren bitartez bideratuko da.

Udalekin lankidetzan aritzeko EUDEL baliatuko da, administrazio horiek hobekien ordezkatzen dituen erakundea delako.

Unibertsitateekin elkarlanean aritzeko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza baliatuko da, eta egun indarrean dauden mekanismoak indartuko dira.

Deskribatutako formularen kaltetan izan gabe, alde biko zein alde anitzeko harremanetarako egoki diren formulak bideratuko dira, eta helburu bakoitza erdiesteko jardunen kronogramak definitzean deskribatuko dira.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan eragile ekonomikoak eta sozialak daudenez (enpresen eta sindikatuen elkarteak eta ikastetxe publiko eta pribatuak), organo hori ezin hobe da eragile horien parte-hartzea sustatzeko.

Organo horrek duen nagusitasuna ez da oztopo parte-hartzeko beste bide batzuk ezartzeko. Bide osagarri horietan profesionalen eta ekoizleen jarduneko sektore kualifikatuak egongo dira, baita planarekin sustatzeko asmoa dagoen prestakuntza-jardunaren hartzailerik zuzen izango diren herritarrak ere.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak duen garrantzia dela eta, erreferente izango da plana planifikatzean zein jarraipenean eta ebaluazioan. Parte hartzeaz gain, jarraipenaren eta ex post ebaluazioaren emaitzen berri izango du, Lanbide Heziketako Plan berri egoki bat sortzeko.

Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan parte hartzen duten erakunde eta eragileez gain, planaren parte-hartze prozesuak eta hedapen-prozesuak, neurriak eta emaitzak Lanbide Heziketako Zentro Integratuen zuzendaritzetara eta Lanbide Heziketako sistemak eskaintzen dituen kualifikazioetarako jardun profesionalak ordezkatzen dituzten erakundeetara helduko dira.

Plana hedatzeak herritar guztiei eman beharko die planerako sarbidea, lanbide heziketaren hartzailerik nagusi baitira; beraz, sarbidea errazteko formulak jarri behar dira martxan, bereziki jakintza mota hori jasotzen ari direnentzat edo hartzailerik izateko aukera asko dutenentzat.

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

7.- Berrikuntza Publikoko eta Administrazio Elektronikoko Plana, 2010/2013

1. HELBURUAK.

Hau da planaren helburu nagusia: 2010-2013 epean zerbitzu publikoak berritzeko eta administrazio elektronikoa garatzeko jardunak identifikatzea, definitzea, ebaluatzea eta horiei lehentasuna ematea.

Hona hemen programaren helburuak:

- Zerbitzu publiko digitalak herritarren eta enpresen esku jartzea, administrazioarekin dituzten harremanak eta izapideak bide telematikoko bidez egin ahal izateko.
- Prozedura administratiboetan tresna elektronikoen eta telematikoen erabilera hedatzea, eta paperaren erabilera ezabatzea.
- Antolamendua aldatzea, eta elkarlana eta sare-funtzionamendua ardatz izango dituen antolamendurantz abiatzea. Horrela, herritarren beharrak eta eskaerak asebate ahal izango dira.
- Gardentasuna eta parte-hartzea sustatzea eta aplikatzea.
- Herritarrak aro digitalean sartzea sustatzea, herritar guztiek berdintasun egoeran erabili ahal izateko zerbitzu digitalak.

Planak honako jardun-esparruetan du eragina:

- Administrazio elektronikoa: Internet egotea, izapide telematikoak eta herritarrei arreta ematea.
- Informazio- eta komunikazio-sistemak.
- Antolamenduaren aldaketa.
- Gardentasuna eta herritarren partaidetza.
- Aro digitalean barneratzea.

Plan honen antolamenduak honako esparruei eragiten die: Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoko Zuzendaritza, Herritarrentzako Arretaren Zuzendaritza eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza.

2. AURREKARIAK.

Plan honen bidez aurreko kudeaketa tresna guztiak bakar batean bateratuko dira.

- Informatika eta Telekomunikazio Plana 2006/2009(TTP)
- Administrazio eta Gobernu Elektronikoen Plan Estrategikoa 2008/2010 (PEAGE)

Plan honek bere egingo ditu hauteskunde-programak administrazio publikorako zituen konpromisoak. Zehazki, honakoak:

- Gobernuko jardunen gardentasuna
- Diru-laguntzak eta laguntza publikoak emateko izapideak sinplifikatzea eta arintzea.
- Legegintzaldietan herri-kontsultak egiteko mekanismo eraginkorrak jartzea, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea.
- Administrazio publikoan software librea erabiltzea.

Eta, oro har, administrazio elektronikoa guztiz garatzea.

Bestalde, planean jasoko dira sailburuak legegintzaldi hasieran Legebiltzarreko Justizia Batzordearen aurrean egindako agerraldian adierazitako konpromisoak.

- Baliabide teknologikoak modu efizienteagoan erabiltzea, eta, bereziki, EJIEn ematen dituen zerbitzuak hobetzea.
- Komunikazio seguruen, babes zibileko eta Eusko Jaurlaritzako beste zerbitzuen TETRA sarea guztiz garatzea.
- Herritarrentzako arreta hobetzea, euskadi.net eta Zuzenean zerbitzuaren bidez.
- Administrazio arteko lankidetzak, administrazio elektronikoa hobetzeko.
- KZ gunea telezentroen sarea berrantolatzea.
- Datu publikoak irekitzea.
- Intranet sistema berria ezartzea, elkar banatzen den ezagutzaren beharrak asetzeko, eta taldeko lana eta erakundeko ikaskuntza hobetzeko ere bai.

3. TARTEAN DAUDEN SAILAK.

Plan hau transbertsala da, eta, beraz, Eusko Jaurlaritza osoa, haren sailak eta erakunde autonomoak hartzen ditu barne. Eta, gainera, beste erakunde instrumental batzuetara heda liteke.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Arauak:

Administrazio elektronikoa ezartzeko berau arautzen duen araua garatzen bukatu behar da; izan ere, arauketa estatuko oinarritzko arauditik hasi da.

EAEEn hainbat arau garatzeke daude administrazio elektronikoari dagokionez, hala nola, artxibo digitala, egoitza elektronikoa edo ediktuen taula elektronikoa.

Era berean, plan honen baitan prozedurak errazteko arauak sortzeko beharra antzeman daiteke, baita karga administratiboak murrizteko beharra edo EAEko administrazio publikoaren antolamendua eta funtzionamendua hobetzeko beharra.

Era berean, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea arautzeko arauen beharrak antzeman daitezke, baita informazio publikoa hedatzeari dagozkion arauenak edo informazioa eduki eta erabiltzekoak.

b) Antolakuntza:

Hasiera batean, planak ez ditu antolamenduko aldaketa zuzenak ekarriko. Hala ere, plana betetzeak sail arteko eta erakunde arteko koordinazio-mekanismoak eta -organoak sortzea ekar lezake, baita laneko prozesuetan eta lanpostuen profiletan ere.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Plana egiten laguntzeko bulego tekniko bat kontratatzea aurreikusi da, eta, gehienez jota, 500.000 € gastatuko dira.

Planeko proiektuak eta neurriak aplikatzeak ezohiko aurrekontua beharko du, eta plana egiterakoan kontutan hartu beharko da.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Plan hau transbertsala da, eta sail guztietako jardunetan eragina du, antolamenduari eta informatikari dagokionez behintzat. Eta, eragin berezia dauka Informazioaren Gizartearen Euskadi Plana 2015 plana duten jardunetan. Azken plan hori Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak sustatuko du.

Bestalde, plan hau Lehendakarietzako jardunekin koordinatu behar da, Gobernu Irekiko esparruari dagokionez.

e) Erakundeen harremanak:

Erakunde arteko lankidetzarako aukerak daude berrikuntza publikoan eta administrazio elektronikoan, eta plan honen helburu dira, gehien bat, eragiketa trukaketari dagokionez.

Beste administrazioekin eta erakundeekin egingo diren jardunen neurria plana egitean zehaztu beharko da.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

1. aldia.- Plana definitzeko dokumentua: 2009ko 4. hiruhilekoa.
2. aldia.- Plana 2010eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan egingo da.
3. aldia.- Plana 2010eko 4. hiruhilekoan onartuko da.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA

Plana 2010 eta 2013 bitartean bete beharko da.

7. JARDUNEN JARRAIPENA, ALDAKETAK ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK

Planean jasotako jardun bakoitza aldiro berrikusi beharko da, adierazle neurrien arabera. Horrela, lortutako emaitzak zein herritarrengan eta enpresengan izandako eragina neurtu ahal izango dira. Oro har, jardunaren eragin esparruan zer eragin izan duten jakiterik egongo da.

Zaila da planaren aginte-koadroa aurreratzea, izaera ezberdinak jasoko dituela kontuan hartuta. Jardun horiek hiru zuzendaritza ezberdinetakoak izango dira, eta, gainera, plana transbertsala izango da sailei eta EJko erakunde autonomoei dagokienez.

Adibidez, aurreratu dezakegu administrazio elektronikoaren kasuan adierazleek azalduko dutela zenbat zerbitzu publiko digital ezarri diren eta zenbat erabiltzen diren. Kontuan hartu behar da administrazio elektronikoa planeko esparru nagusietako bat dela, proiektu kopuru eta esleitutako baliabideei dagokienez.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Plana egin eta jarraitzeko, lan-taldeak eta sareak sortuko dira, erakunde arteko lana erraztu dezaten eta, era berean, gizarte-eragileen laguntza eta parte-hartzea ekar dezaten.

Gainera, planean jasota dauden proiektuak eta neurri zehatzak garatzeak elkarlanerako beste organo eta mekanismo batzuk sortzea ekar dezake.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Plana metodo irekiarekin egingo da, parte-hartzean oinarrituta, eta planaren asmoa EJko esparruan erreferente izatea da.

Beraz, planaren jardun-ardatz bakoitza gobernuko sailetako langileekin, beste administrazio publikoetako langileekin eta hizpide diren gaiekin lotuta dauden eragileekin osatuko da.

Plana egiteko prozesuan kanpoko informazioa emango zaie herritarrei eta barruko informazioa Eusko Jaurlaritzari, egoki irizten dituzten ekarpenak egin ditzaten.

Plana egiteko sortutako talde eta sareek plana gauzatzeko prozesua jarraituko dute, plana gauzatu ahala suertatuko diren egoeren arabera plana egokitze erabakiak hartzen laguntzeko.

Modu berean arituko dira kanpoko eta barruko informazioarekin, plana eratzean nagusi izango diren gardentasuna eta parte-hartzea gauzatzeko unean ere izan daitezten.

Bide bereziak sustatuko dira herritarren parte-hartzea sustatzeko, haiek baitira planaren zerbitzu administratiboen berezko erabiltzaile.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Plan zabal hedatuko da, barruan zein kanpoan, eratze zein gauzatze aldietan.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

8.- Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzako Gida-plana, 2010/2013.

1.- HELBURUAK

Euskal herritarren gizarte-kezka handienetako bat etxebizitza izateko eskubidea da; izan ere, gure gizarteko talde askori eragiten dio.

Etxebizitzak ondasun urria eta garestia dira, eta gai horren kudeaketa eskaintzaren eta eskaeraren arteko desoreka handian egiten da: prezioak herritar askoren aukeretatik urrun daude.

Testuinguru horretan, Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzako Plan Gidariak, 2010-2013, aipatu laurtekorako etxebizitza-estrategiako lehen tasunak ezartzeko asmoa dauka, baita jardun-lerro nagusiak eta laguntza tresnak zehaztekoa ere.

Oraindik plana eta Etxebizitzaren Herri Akordioa definitzeko hasierako etapetan gaude, eta oraindik ez dira etorkizuneko lehen tasun estrategikoak eztabaidatu; hala ere, jardunerako ardatz batzuk aurreratu ditzakegu:

- Babes publikoko etxebizitzak sustatzea, eta, bereziki babestutako alokairua: babes publikoko etxebizitzak egingo dira, eta horietako % 40 alokatzeko izango dira.
- Etxebizitza-parkearen egoerak hobetzea: hiriak eraberritzea eta birsortzea.
- Berrikuntzako eta I+G+b politikak sartzeari.
- Udalak etxebizitzako politika berriaren giltzarri bihurtzea.

2. AURREKARIAK.

Aurreko plan gidariak.
Etxebizitza IV. Plan Gidaria, 2006-2009.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

- Etxebizitza, Garraio eta Herri Lan Saila.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila; izan ere, sail hori energiaren politikaren ardura dauka, eta, zehatzago, energiaren efizientziarako jardunen ardura.
- Ingurumena, Lurralde Plangintzan, Nekazaritza eta Arrantza Saila, plangintzaren arduradun gisa.
- Ekonomia eta Ogasun Saila: aurrekontu arloa, OCE.
- Kultura Saila Gaztedi eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritzaren bitartez, eta, betiere, gizarteko sektore horrek etxebizitza bat eskuratzeko duen arazoarekin lotuta.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Etxebizitza eta Hiri-berrikuntzako 2010-2013 Gida-planak ekarriko dituen arau-aldaketak ezin dira zehatz aurreratu, definitu artean, baina zer esparrutan izango duen eragina azaldu daiteke:

- Babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoa eta finantzako neurriak etxebizitzako eta lurzoruko gaietan.
- Etxebizitza-beharren araudia.
- Etxebizitza-eskatzailen erregistroaren araudia.
- Sustapen publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedurak.
- Etxebizitzak eraberritzeko aplikatu daitezkeen araudia.

b) Antolakuntza:

Saileko eta mendeko sozietate publikoen informazioko prozesu eta sistema komunak benetan integratzeko ibilbidean aurrera pausoak egin nahi dira, helburu hauekin:

- administratuari zerbitzu hobea ematea, izapideak arinduz.
- *etxebizitza taldearen* kudeaketa hobetzea, etxebizitzako politikak gauzatzeko datuak azkar eta osorik eskuratu ahal izango direlako, kudeatzaile zuzena saila bera zein sozietateak izanik.
- ezarritako helburuen jarraipenaren eta ebaluazioaren kalitatea hobetzea.

Egun *etxebizitza taldea* proiektu bat egiten ari da elkarlanean, elkar banatzen dituzten prozesuak analizatzeko. Horren helburua jardun-ildoak hobetzea da, informazio-kanalak hobetuz eta egokitzuz eta Etxebizitza Saileko informazio-sistemen garapen zehatzetara eramanez.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Goizegi da planak aurrekontuetan izango duen eragina zehazteko, baina aurreikusi daiteke aurreko ekitaldietako aurrekontua mantendu edota handitu beharko dela.

Berritasun gisa honakoa aipa daiteke: mekanismo publiko-pribatua jarri da martxan, babestutako etxebizitza mota ezberdinak finantzatzeko. Mekanismo horrek ohiko aurrekontuak ematen duen gastu aukera izugarri handitzeko aukera ekarri beharko luke.

Espero dugu bide horren bidez funts pribatu nahikoa mugiaraztea, alokairura bideratuko diren etxebizitza-kopuru nabarmena sustatu ahal izateko. Aurrekoa hala izanez gero, administrazioak eragiketarako egin ahal izango ditu hasieran dirurik gastatu gabe, eta gastu-konpromisoa denboran asko hedatuko da.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jardun-lerroren bat bidera lezake, energiaren efizientziari dagokionez etxebizitza iraunkorrak eraikitzeko.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila: energia aurrezteko eta efizientea izateko jardunak eta eraikuntzan eragina dutenak.

e) Erakundeen harremanak:

Foru-aldundiekin zein udalekin harremanak estutzeko esperantza dago. Lehenengoekiko harremana oso garrantzitsua da, etxebizitzako fiskalitateari dagokionez bereziki, eta, era berean, udalak funtsezko oinarri gisa ikusten dira, etxebizitzako politikan duten rolagatik.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|--------------------------------|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoak eratzea. | 2010eko 1. eta 2. hiruhilekoak |
| 2. aldia | Plana egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 3. hiruhilekoa |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010-2013.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Estrategiaren lehentasunak eta jardun-lerroak zehaztu artean ezingo dira aginte-koadroko adierazleak aurreratu, baina aurreratu daiteke planaren jarraipenak eta ebaluazioak arreta berezia jasoko dutela eraketa-prozesuan, adierazle esanguratsu eta egokien batera baten bidez.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzako Gida-planeko helburuak, ildo estrategikoak eta jardunak definitzeko lan-taldeak osatuko dira. Taldeetan saileko langileak eta (lurralde ordezkaritzetakoak ere) etxebizitza taldeko sozietate publikoetako langileak egongo dira, baita Ekonomia eta Ogasun Saileko ordezkariek ere.

Eragileen prozesu honetan izango duten parte-hartzea bi mailetara bideratu da: etxebizitzaren aldeko Akordio Sozialeko lan-saioetan parte hartzea. Akordio horretatik

sortzen dira etxebizitzako politikako eta gida-planeko gakoak, baita kontraste-saioak ere. Saioak antolatzeko Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzako Gida-planeko (2010-2013) zirriborro aurreratu bat izan behar dugu.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren nahia plana da egiteko eta definitzeko prozesuan herritarrek zabal parte hartzea.

Asmo horren harira, web-gune bat irekiko da plana eratzeko prozesuari buruz, eta www.etxebide.info helbidean aurki daiteke. Mota ezberdinetako mekanismoen bidez (blogak, asteko eztabaida, elkarrizketak zuzenean...) talde ezberdinetako pertsonen ekarpenak eta iritziak lortzeko saiakera egingo da (administrazioa, sektoreko profesionalak, elkarteak, herritarrak, etab), eta eraketa prozesuan sortutako edukiak Irekia plataforman sartzea baloratuko da.

Bestalde, plana egiteko egutegian aukera bat jasota dago planteatutako helburuak eta ildoak alderatzeko, betiere zirriborroa prest egonez gero. Hasiera batean, sektoreetako adituek eta eragileek parte-hartzea da asmoa: higiezineta sustatzaileak, jabetza higiezin agentek, etxebizitza sustatzeko erakunde publikoak, Gaztediaren Kontseilua, EGAB, udal-teknikariak, hirigintzako arkitektoak, eraberritze-sozietateak, etxebizitza-eskatzaileak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, etab.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA.

- Dokumentuaren argitalpen editorial berezia egitea.
- Web bidezko informazioa (Irekia plataforma, euskadi.net., etxebizitza-sozietateen webak, Etxebideren weba, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren weba...).

9.- Trenbideko Euskadi 20-20 Plana, tren eta tranbia bidezko garraiorako

1. HELBURUAK.

Eusko Jaurlaritzako garraio atalak ez du izan estrategia integratu bat EAEn dauden trenbideen eta tranbien azpiegituretarako. Eusko Jaurlaritzak pertsonak eta salgaiak errepidetik garraiatzearentzako alternatiba gisa aurkeztu nahi du trenbide bidezko garraioa, eta horregatik ikuspegi berria eta behin betiko bultzada eman nahi dizkio. Horrek guztiak estrategia berria definitzeko plan bat egitea justifikatzen du.

Helburuak:

- EAEko trenbideen eta tranbien azpiegitura guztien kudeaketa eta estrategia integrala.
- Egun dagoen garraio-eredua aldatzea, pertsonen eta salgaien garraioan tren eta tranbia bidezko garraioak garrantzi handiagoa izan dezan.
- Herri barruko eta herri arteko trenbide bidezko kalitatezko garraio-zerbitzua sustatzea, errepide bidezko garraioarentzako benetako alternatiba.
- EAEko eragile guztiek trenbide-zerbitzuak koordinazioz ematea.
- Baliabideak optimizatzea tren eta tranbia bidezko garraio publikoa ustiatzean. Horretarako behar dira kudeaketa eraginkorragoa eta kudeaketa-formula publiko-pribatuak.
- Lurraldean zerbitzu berriak jartzea, azpiegitura eratzeke; operadoreak koordinatzea eta bidaia-txartela bakarra sortzea.
- Gizarte-kohesioa sustatzea, herritar guztiek irisgarritasun aukera berdinak izatearen bidez. Irisgarritasuna berdina izan dadin, garraio kolektibo ordaingarria behar da.

2. AURREKARIAK.

Eusko Jaurlaritzarentzat funtsezkoa da estrategia eta filosofia komunak definitzea. Era berean, ikuspegi integrala nahi du, trenen eta tranbien jardun guztien berri jaso dezan. Plan hau beste plan orokorrago batean sartuko da, EJK herritarren mugikortasunarekin duen beste batean.

Gertuen dagoen aurrekaria EuskoTren XXI Plana da. Plan hark EAEko aldirietako trenentzako neurriak eta jardunak jaso zituen. Hala ere, trenen eta tranbien azpiegiturek behar izaten duten ikuspegi globalik ez zuen, eta egoera hark helburuak ildotik ateratzea ekarri zuen. Gainera, proiektu batzuk kentzea eta beste batzuk atzeratzea eragin du, baita berririk ez sartzea ere, hala nola, EAEko Abiadura Handia.

Bestalde, beste aurrekari batzuk aipatu behar dira: arauetako buruzko planak. Hala nola, EAEko trenbide-sarearen Lurraldearen Zatikoa Plana. Plan hori aldi-aldi berrikusi eta aldatzen da, area ezberdinetako azpiegituretako berrikuntzak sartzeko.

Aurreko guztiagatik, funtsezkoa da hurrengo 10 urteetarako plan estrategikoa edukitzea. Horren bidez EAEko trenbideetako jardunak identifikatu, egutegian kokatu eta lotuko ditu.

Gobernuaren asmoa oraingo legegintzaldia garraioaren legegintzaldia izatea da, eta, horregatik, Trenbideko Euskadi 20-20 Plana gobernuko estrategia gisa hartu du, eta ez sektorekoa bailitzan. Izan ere, garraioan zehaztasunez definitzeko beharra dago, horrek eredu iraunkor eta lehiakor bat sortzen eragin zuzena izango duelako, eta lurralde- eta gizarte-kohesio eta ongizate handiago izaten lagunduko duelako.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

- Sail nagusia:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak

- Beste sail batzuk:

-Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Ikastetxeetara joateko irisgarritasun egokia, bereziki unibertsitateetara.

-Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa Salgaien trenbide bidezko garraioa ekoizpen-sareari egokitu behar zaio. Era berean, langileek lantokietara heltzeko duten sistema hobetuko da, eta trena turismoaren esparruan sustatuko da.

-Osasuna eta kontsumoa. Nagusiki ospitaleetara joateko moduei dagokienez.

-Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza. Tren bidezko garraioa iraunkorra da ingurumenaren aldetik, energetikoki efizientea, kutsadura akustiko gutxiago sortzen du eta toki gutxiago okupatzen du.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Euskadi Trenbidea Plana onartzea ez dago ezein arauetan jasota.

b) Antolakuntza:

Hasiera batean, planak ez du eragingo izaera juridiko propioa duen erakunde formalik sortzea. Hala ere, aurreikusi diren jardunetan beste sail, administrazio eta erakunde batzuek duten inplikazioagatik, batzordeak eta lan-taldeak osatuko dira, aipatutako lankidetzak burutzeko.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Zaila da planak eragingo dituen proiektuak eta jardunak zehaztea, aldagai askoren mende daudelako, adibidez beste administrazio batzuen laguntza –negoziaketen araberakoa- eta finantzazio pribatua sartzeko aukera.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Hizpide dugun esparruan beste sailek lortu nahi dituzten helburuak 20-20 Planaren baitan abiatutako ekimenen bidez erdietsi daitezkeen heinean, sail horiek laguntza eman beharko dute, edo, gutxienez, konpromisoak eta ekimenak ezartzeko aldiaren parte hartu beharko dute.

3. puntuan azaldutako elkarrekiko mendetasunak garrantzitsuak dira. 20-20 Planetik inertzia batzuk eratoritzen dira, eta ezin hobe lotzen dira Eusko Jaurlaritzako sailen helburuekin eta gobernuarekin berarekin. Horregatik, funtsezkoa da sail arteko politikak integratzea eta koordinatzea, premisa eta estrategia komunak oinarri hartuta.

e) Erakundeen harremanak:

Asko izango dira. Eusko Jaurlaritzak honako erakundeekin izango dituen harremanak nabarmendu behar dira bereziki: ETS, Euskotren, estatuko administrazio orokorra, FEVE, RENFE, foru-aldundiak eta udalak, Gipuzkoako eta Arabako garraioko agintariak, Bizkaiko Garraioen Kontsortzioa eta Frantziako eskualdeko trenbideen agintariak.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|---|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoak eratzea. | 2010eko 1. hiruilekoa |
| 2. aldia | Plana egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 2. hiruilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 2. hiruilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 3. hiruilekoa. |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010/2020.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

20-20 Planean bertan jarraipenerako eta ebaluaziorako aginte-koadro bat dago, jasota dauden neurriak eta ekimenak betetzen direla egiaztatzeko. Jarraipen-koadro horretan jardunak bete izanaren adierazleak izango ditu, baita jardunen helburuak eta planaren arrakasta maila neurtzekoak ere.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Parte hartuko duten erakundeek konpromisoak eta ekimenak eztabaidatzen eta idazten lagun dezaten espero da, eta horretarako lan-mahaiez baliatzea. Lan-mahai horietan hartutako erabakiak *input* gisa erabiliko dira, konpromiso eta ekimen zehatzak ezartzeko.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Ez da aplikatzen.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Planaren bidez Eusko Jaurlaritzak herritarrekin hartutako konpromisoak jaso eta definituko ditu, trenbide-garraioari eta mugikortasunari dagokionez. Gobernu Kontseiluak plana onartzean jakinarazpen publiko formala egin beharko da.

Era berean, jardun bakoitzak berriazko trataera eta haren berri emateko hedatze aldia izango ditu, daukaten eraginagatik eta hedabideetan izaten duten pisuagatik (Donostialdea Metroa, Metro linea berriak, tranbiaren bidea luzatzea).

10.- Mugikortasun Iraunkorraren Gida-plana. Estrategia komuna mugikortasunerako eta garraiorako – 2020 Muga.

1. HELBURUAK.

Mugikortasun Iraunkorreko Gida-planaren helburua mugikortasuneko eta garraioeko politika komuna egitea da, eta gobernua 2020 urtera bitarte garatzeko asmoa dauka. Honako helburu hauek nabarmendu behar dira:

- Garraioaren eta garraio-egituren efizientzia optimizatzea eta hobetzea, lurraldea ondo antolatuz eta garraio-sistemaren eta lurraldean dauden jardunen banaketaren arteko koordinazioaren bidez. Era berean, garraio arteko trukea eta erakundeen arteko koordinazioa behar dira, eta, noski, politika publikoetan eta araukoetan transbertsalitatea egotea.
- Klima-aldaketaren aurka borrokatzea eta ingurumena, airearen kalitatea eta soinuaren kalitatea hobetzea. Aldaketa eta hobekuntza horiek lortzeko oreka egokia eskuratu behar da garraio-moduen artean, garraio kolektiboaren sustatu behar da eta garraioa doitu behar da oinezkoentzat eta bizikleta gidarientzat egokia izan dadin.
- Efizientzia energetikoa eta mendetasun energetikoa murriztea.
- Gizarte-kohesioa, herritar guztiek aukera berdinak izan ditzaten zerbitzu guztiak, lana, ikasketak eta aisialdia ingurumenarentzat garbiagoak diren moduetan jasotzeko.
- Lehiakortasuna hobetzea arrazionalizatuz eta azpiegituren kostua murriztuz, baita mugikortasunaren E+G+b sustatuz ere.
- Pertsonak eta salgaiak mugitzeko estrategiak eta ildoak ezartzea.
- Azpiegiturek garatzeko zuzentarauen irizpideak definitzea.

2. AURREKARIAK.

Honako aurrekariak aipagarriak dira:

a) Plangintzako eta jardun adierazgarrietako aurrekariak:

- Garraio Iraunkorraren Euskadiko Gida-plana, 2002/2010. Plan honek asmo handiko printzipioak eta helburuak proposatu zituen iraunkortasunaren esparruan. Hala ere, plan hori gainditu behar da, proposatu zituen helburuak lortzeko politikak eta jardunak abiatzeko tresnarik ez zuelako (balio judizioa).
- Garapen Iraunkorrerako Ingurumeneko Euskal Estrategia 2002-2020 Kontseilu Gobernuak onartu zuen 2002ko ekainaren 4an, eta ingurumena gehien errespetatzen duten garraio-bideak sustatzea nabarmentzen du.
- EAEko II. Ingurumen Esparru Programa 2007/2010 eta Klima Aldaketari aurre egiteko euskal Plana 2008-2012. Plan horiek biek neurriak jasotzen zituzten garraio-mota ezberdinei buruz, garraioa energia-efizientzia gutxien daukaten sektoreetako bat delako eta kutsakorrenetakoa delako.

b) Hauteskunde-programarekin, lehendakariak Legebiltzarrean egindako agerraldiarekin edo sailburuek egindako agerraldiekin duen lotura:

- Mugikortasun iraunkorraren legea onartzeko proiektua (PSE-EEren hauteskunde-programa eta lehendakariaren inbestidurako osoko bilkura).
- Garraioak ingurumenean duen eragina bideratzeko arazoa aipatu zen, baita garraio kolektiboa eta motorrik gabeko garraioa sustatzeko beharra ere (inbestidurako osoko bilkura).

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Plana burutzeko arduraduna: Etxebizitza Herri Lan eta Garraio Saila.

Mugikortasunarekin lotuta dauden gaietako eskumenak edukitzeagatik parte hartuko dutenak:

- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Bereziki lurraldea antolamenduan eta ingurumenean dituen eskumenengatik.
- Herrizaingo Saila, bideko segurtasunean dituen eskumenengatik.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila. Mugikortasunean eragina duten jardun ekonomikoen sustapenagatik, eta berrikuntzan egiten dituen ekarpenengatik.
- Kultura Saila. Bizikletaren estrategia integralean duen eginkizun adierazgarriagatik.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Planak ildo politikoak eta estrategikoak ezartzen ditu arauak egiteko plan guztietarako; adibidez, garraioko LZPak.

b) Antolakuntza:

Hori idazteko tutoretzapeko talde zuzendaria osatuko da Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren bidez, eta esparru horretan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako arduradunek hartuko dute parte (zuzendari mailakoak).

Planak ekarriko dituen programak jarraitzeko batzorde berezia osatuko da (plana idazteko plan zuzendariaren egitura antzekoa izan dezake). Batzorde horretan jardunetan esku-hartze gehien izango duten sailak egongo dira, bereziki jardun komunen ardura duten sailak.

Plana idatziko duen talde zuzendariak eta planaren jarraipena egingo duen batzordeak lantalde teknikoak izango dituzte, eta, gutxienez, tartean diren sailtako langileak izango dituzte.

Era berean, plana garatzeko jardunak beste sail batzuek egindako planetako garapenarekin batera burutuko dira. Klima-aldaketaren aurkako borroka plana, eta Garapen Iraunkorrerako Ingurumeneko Euskal Estrategia 2002-2020tik sortutako programak, berrikuntza teknologikoko planak eta garraioaren iraunkortasunean eragingo duten bestelako planak eta programak. Horretarako, beharrezko parte-hartze edo kontsulta planak ezarriko dira, plan bakoitzeko ardura duten sailekin.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Zail-zaila edo ezinezkoa da kalkulatzeko. Proposatutako aldaketak arauetan izango duten eragin handiena, eta, beraz, ez dira inbertsio zehatzak jaso.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Honelako koordinazio-mekanismoak sortuko dira:

- Planak ekarriko dituen programak jarraitzeko; programa komunetan edo sail bakoitzeko planetan eskumenak dituzten sailek hartuko dute parte. Bereziki Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.
- Kontsultak jaso eta bideratzeko; hori erakunde guztientzat eta interesa duen eragile ororentzat irekita egon behar da.

e) Erakundeen harremanak:

Foru-aldundiek, udalek, tokiko erakundeek, kontsorzioek eta garraioaren eskualdeko agintariak parte hartu beharko dute, lurraldearen mugikortasuneko eskumenetan duten zatiagatik.

Era berean, plana egin eta betearazteko Euskadiko Garraioaren Agintaritzak hartzen dira oinarri, garraioa gaitako kontsultak eta koordinazioa burutzeko erakunde goren gisa. Helburu horrekin, ponentzia edo atal bat sortuko da betan, planari buruzko galderetarako eta planetik sortzen diren jardunak edo politikak betetzeko.

5. IZAPIDETZAREN ALDIAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduerak | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|--|--------------------------------|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoen eta ekonomikoen dokumentua. | 2010eko 3. hiruhilekoa. |
| 2. aldia | Plana behin betiko egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak | 2011ko 1. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2011eko 2. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2011eko 3. hiruhilekoa. |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2012/2020.

7. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK

a) Planaren kudeaketa, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa egingo duten organoak eta banakakoak.

- Jarraipen batzordea, osaerakoa eta talde zuzendariaren antzeko egitura. Planetik eratortzen diren programetan eragina edo erantzukizuna izan dezaketen sailak sartuko dira.

- Plana idazteko eta jarraitzeko talde teknikoak. Zuzendaritza-taldea eta jarraipen-batzordea osatzen duten sailetako langileak egongo dira gutxienez.
- Kasuan kasu Euskadiko Garraioko Autoritateak dituen funtzioak etorkizunean egingo den Mugikortasun Iraunkorraren Legean definituko dira.

b) Plana jarraitu eta ebaluatzeko formula bereziak aurreratu:

- Programatutako jardunak noraino bete diren ebaluatzea.

c) Aurreikusitako eragina:

Mugikortasun iraunkorraren aldagaia sartu lurraldearen, jardunen eta zerbitzuen plangintzan eta garraio-azpiegituren eraikuntzan.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Plana eta planarekin lotutako programak burutzeko erabiliko den bitarteko tresna, baita jarraipena ere. Garraioaren Agintaritza du oinarri garraio-gaietako kontsultetarako eta koordinaziorako. Horretarako beharrezko ponentzia edo atala sortuko da.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Esparruan eskumenak dituzten administrazioez eta mugikortasun-planak garatzeko sortutako lurralde-erakundeez gain, honakoak ere talde interesgarritzat jotzen dira: garraio-sektoreko profesionalen elkarteak eta sektoreko enpresak, baita mugikortasunaren gainean diharduten hiri-elkarteak ere.

Plana idatzi aurretik, ekarpenak jaso eta tratatzeko kontsulta-linea bat sortuko da, tartean diren eta interesatuta dauden erakundeek parte har dezaten. Jasotako ekarpenak plana idazteko zein planeko programetarako erabiliko dira. Aipatutako kontsultarako beharrezko bideak egokituko dira, ekarpenak jasotzeko (Internet gutxienez), eta kontsulta martxan egongo harremana zuzenena duten eragile sozial eta ekonomikoei dokumentuaren aurkezpen publikoa egitetik aurrera.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA

Behin betiko dokumentua publikoki hedatzeko eta haren berri emateko modua:

- Dokumentua lurralde- eta toki-administrazioetara bidaltzea.
- Prentsari aurkeztea.
- Interneten argitaratzea, saileko web-orri ofizialean.
- Planaren edukia jardunaldi publiko teknikoetan azaltzea. Jardunaldi horietara ekarpenak egin dituztenak gonbidatuko dira, eta gonbidapena eskatzen duen orori ere sartzen utziko zaio.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

11.- Enpresa Lehiakortasuneko Plana, 2010/2013.

1. HELBURUAK.

Lehiakortasuna aberastasunaren oinarria da gure lurraldean eta gurea bezalakoetan. Lehiakortasun iraunkorra duten enpresek bakarrik izan dezakete hazkunde ekonomikoko oinarri sendoa; eta oinarri horrek ekartzen du aukera enplegu gehiago sortzeko: kalitate hobeko enplegua, baita gizarte-kohesio handiagoa ere.

Ekonomia goitik beherako aldaketa izaten ari da egituran, honako faktoreen ondorioz: ekonomia globalizatzea, merkatuak eta kapitalak Asiara bideratzea, ingurumena, ezagutzaren gizartea, biztanleria zahartzea eta beste hainbat aldaketa ekonomiko, demografiko eta sozial. Faktore horiei honako ere gehitu behar zaio: mundu-mailan eragina izan duen ekonomia-atzeraldi bortitza. Atzeraldiak gogor astindu ditu gure jardun-sektoreak, eta enpresetako eta erakundeetako estregiak eta lehiakortasun-irizpideak birplanteatzea ekarri du.

Beraz, planaren helburua hazkunde ekonomikoa sustatzea eta laguntzea da, eta, horretarako, ondasunak modu iraunkorrean ekoiztea eta balio erantsi handia duten zerbitzuak ematea da. Ezaugarri horiek egungo sektoreetan zein dibertsifikazioz sortuko diren besteetan aplikatuko dira. Dibertsifikatzeko, egungo sektoreak hartuko dira abiapuntu, eta oinarri sendoa eduki beharko dute.

2. AURREKARIAK.

Enpresa Lehiakortasuneko Plana 2010-2013ren aurrekaria da *Enpresa Lehiakortasunerako eta gizarte Berrikuntzarako Plana- PCEIS 2006-2009*. Bestalde, PCEISen aurrekari zuzena *Ekonomia Sustatzeko Erakunde arteko Plana 200-2003 (PIPE)* izan zen.

PCEIS egin baino lehen, Euskadi 2015 Lehiakortasun Foroa sortu zen, lehiakortasun-planeko gizarte-eragileen parte-hartze esparru gisa. Parte-hartzea iraunkorra bihurtu zen, eta plangintzako prozesutik harago hedatu da. Helburu horrekin, Lehiakortasunaren Foroaren esparruan, Industriaren Behatokia sortuko da, lehengo Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak egindako industriako politikaren jarraipena egiteko.

Gainera, hauteskunde-programak erreferentzia ugari egiten dizkie lehiakortasuna sustatzeari eta Lisboako Estrategian onartutako helburuei (Estrategia hori berrikustea ere); izan ere, aipatutakoak plan honen ildo berekoak dira (beraz, planeko kapituluak produktibitateari, berrikuntzari eta lehiakortasunari, energiari eta garapenari, ETEak tratatzeko moduari etab. buruzkoak dira, baita euskal enpresa nazioartean zabaltzeari buruzkoak ere.)

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Lehiakortasuna, eta, zehazki, enpresen lehiakortasuna Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren helburu estrategiko nagusia da. Lehiakortasunerako planak sailaren plangintza estrategikoa artikulatzen du, baina lehiakortasuna hobetzea ez da helburu isolatua; aitzitik, beste sail batzuetaraino heltzen da:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, besteak beste I+G+bn duen eraginagatik, baita talentua garatzen eta eskura izaten duen eraginagatik ere, etab.
- Ekonomia eta Ogasuna, zergek lehiakortasunean duten eraginagatik,
- Enplegua eta Gizarte Gaiak, enplegu-politikek eta produktibitateak duten garrantziagatik; izan ere, horiek biak dira lehiakortasunaren funtsezko osagai.
- Ingurumena, Lurraldearen Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza, enpresa-jardunen instalazioan eta funtzionamenduan duten eraginagatik.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak. Azpiegiturak, garraioa eta etxebizitza funtsezkoak dira jardun ekonomiko orokorrean eta enpresen lehiakortasunean.
- Osasuna eta Kontsumoa. Kontsumoko segurtasunak eta antzeko alderdiek enpresetako lehiakortasun-elementuak definitzen dituzte. Baita osasunarekin eta kontsumoarekin lotutako I+G ere.
- Kultura, jardun ekintzailearekin lotutako balioak eta beste kultura-elementu batzuk, berrikuntza, kultura-aniztasuna, lankidetzeta-gaitasuna, etab.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

EAEko industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legeak, 20. artikuluan, ezartzen du Industriako eskumena daukan sailak industria-jarduerari buruzko lau urteko plan estrategikoak egingo ditu. Planak erakundeen artekoak izango dira eta gaiarekin zerikusia duten gizarte eta ekonomia eragile guztiek hartuko dute parte. Gai hauek jorratuko dituzte planek: lege honetan aurreikusten diren industria-politiken diagnostikoak, printzipioak, helburuak, politikak, baliabideak, finantzaketa eta ebaluazioa. Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaizkio plan horiek, eztabaida ditzan, eta haien betetze-mailari buruzko ebaluazioa egingo da aldian-aldian.

Lehiakortasunerako plana sailaren estrategia-plana da, eta sailaren gainerako planak eta jardunak batzen ditu.

b) Antolakuntza:

Sail arteko zein erakunde arteko mekanismoak ezarri beharko dira, lehiakortasunaren esparruan beste erakunde batzuk ere daudelako: aldundiak, udalak...

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Lehiakortasunerako planak ildo estrategikoak ezartzen dizkio Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari, eta, hala egoki izanez gero, lehiakortasun kontuetan tartean diren gainerako sailei. Aurrekontuetan, berriz, ez dute eraginik izango, jardunerako

lehenetasunezko ildoak banatzean izan ezik. Izan ere, printzipioz, aurrekontu arrunta erabiliko da honetarako.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Lehiakortasunerako planean lehiakortasun-politikako erabaki nagusiak bilduko dira, eta horiek tartean diren sailentzako gidari izango dira. Ondoren, sail bakoitzeko programan, planak ezarritako ildoak garatuko dira programen bidez. Erabaki horiek sail arteko batzordeetan landuko dira, eta tartean diren sailek ere hartuko dute parte. Ondoren, Gobernu Kontesiluan hartuko dira erabakiak.

e) Erakundeen harremanak:

Plan honetan elkarlanean aritu daitezkeen erakundeen artean, honakoak nabarmendu daitezke:

- Tokiko administrazioa.
- Foru-aldundiak.
- Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque
- Tokiko garapenaren agentziak
- Enpresa-elkarteak.
- Langile-sindikatuak eta langileen ordezkariek.

Harremana plana egiteko zein haren kontrola eta jarraipena burutzeko ezarriko da, eta planak duen izaera parte-hartzailea bermatuko da.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|--------------------------------|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoak eratzea. | 2010eko 1. hiruhilekoa |
| 2. aldia | Plana egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2010eko 3. hiruhilekoa. |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010-2013.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK

Plana egiteko eragile nagusien parte-hartzea egongo da. Gero, planari buruzko behin betiko komunikazioa eta kontratea egingo dira. Plana eratzeko alditik hasita, kontrastean plana

osotasunean aintzat hartuko duen taldea egongo da, eta, gainera, talde gutxi batzuek planak garatzen dituen gai nagusien kontrastea egingo dute.

Planaren eraketan parte hartzeaz gain, Plangintza eta Estrategia Zuzendaritzak (Industria, Garapen, Merkataritza eta Turismo Saileko Kabinete, Plangintza eta Estrategia Sailburuordetza) planaren jarraipenean eta ebaluazioan hartuko dute parte, SPRiaren laguntzarekin. Halaber, plana eratzeko lizitazio bidez aukeratuko den kanpoko ahokularitzaren laguntza jasoko da, baita Lehiakortasunerako Euskal Institutuarena, Innobasquena, Euskalitea eta Confebaskena ere.

Planaren osakeran bertan ebaluazio-sistema definitzeko funtsezko alderdia sartu da, baita, plana indarrean egon bitartean, ebaluazio-prozesuaren antolamendua eta erabiliko adierazleak ere.

Lehiakortasunerako planak bi helburu erdiesteko aukera ekarri behar digu: atzeraldia iraun bitartean jardun ekonomikoari eusten laguntzea eta horrek euskal ekonomian duen eragina alde batetik, eta enpresen gaitasun lehiakorra indartzea, etorkizunean ongizate ekonomikoa bermatzeko, bestetik.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Lehiakortasunerako planaren funtsezko edukia Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren jardun-esparruari buruzkoa izango da. Hala ere, lehiakortasun-politikei buruzko erabaki nagusiak sartu behar dira, tartean diren beste sailentzako gidari izan daitezten. Erabakiak sail bakoitzak gero burutuko dituen programetan garatu beharko dira. Erabaki horiek sail arteko batzordeetan landuko dira, eta tartean diren sailek ere hartuko dute parte. Ondoren, Gobernu Kontseiluan hartuko dira erabakiak.

Plana onartuta, eta planaren jarraipen-prozesuan ezarritakoarekin batera, erabakietatik eratorri diren jardun estrategikoen ildoetan ezarritako helburuak bete diren aztertuko da.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Plan berriak gobernuko printzipioak bermatu behar ditu, European definitu direlako zentzuari dagokionez; tartean diren gizarte-eragileek parte hartzen dutela bermatu behar du planak, plana garatzen zein jarraitzen.

Enpresek mota askotako eragileak hartzen dituzte tartean: enpresak, mota askotako enpresa-elkarteak, administrazio ezberdinetan atxikitako erakunde publikoak: tokikoak, autonomia-erkidegokoa, estatukoak, langileak eta haien ordezkariak, garapen-agentziak, Berrikuntzaren Euskal Agentzia, teknologia-zentroak, unibertsitateak, etab.

Asmoa da aurreko planak eraketa eta jarraipen fasean izan zituen parte-hartzeari eustea.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA

Plana Gobernu Kontseiluan onartu ondoren Legebiltzarrerara bidaliko dute, han eztabaidatuko da, eta proposamenak egin ondoren, aurkeztu eta haren berri emango da.

Plana ahal den gehien hedatu beharko da, gizarte guztiarentzat interesgarria delako. Horretarako nahi handiko komunikazio-plana ezarriko da, eta mota ezberdinetako mekanismoak bilduko ditu: argitalpenak (gutxienez euskarri elektronikoan), aurkezpen publikoko jardunaldiak, hedabideetan agertzea eta egoki irizten diren beste batzuk.

12.- Informazioaren Gizartean Euskadi Plana 2015

1. HELBURUAK.

Informazioaren gizartea sustatu, Euskadi ezagutzaren gizarte izan dadin. Kohesiodun gizartea izan dadin, hazkunde iraunkorraren aldekoa, eta banakako zein taldeko bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak hartzen parte hartzen duena.

Informazioaren gizartea industriaren gizartearen garapena da, eta, informazioaren gizartean, ekonomiaren gakoak poliki-poliki aldatzen dira industria kontrol eta optimizaziotik informazioaren prozesatzera eta maneiora. Faktore diferentzial bat sartzen da: pertsona bakoitzak ez du soilik bere jakintza propioa pilatzen, baizik eta ia gaitasun mugagabea dauka besteek sortutako informaziora sartzeko, eta, gainera, aukera asko ditu besteentzako informazio iturri bilakatzeko. Prozesu hori abian da mundu guztian, baita Euskadin ere; eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak bateratzen ditu (IKT), eta pertsonak eta erakundeak (enpresak, administrazioak, etab) teknologia horien erabilera intentsiboa eginez, gizarte aberatsagoa eta kohesionatuagoa osatzen dute.

Euskadik iragan eta orainaldi arrakastatsua ditu industria gaietan, eta, ondorioz, Euskadiko errentak munduko ekonomia aberatsenen artean kokatuta daude. Posizio horri eusteko ekonomia globalaren eboluzioarekin egokitu behar da, eta, horretarako, honakoak egin behar ditu: IKTen trenean igo eta informazioaren benetako gizartea eraiki; izan ere, gizarte mota horrek aukerak ekarriko ditu motor ekonomiko gisa eta gizarte-justizia gehiago lortzeko.

Informazioaren gizartea errealitate bat da Euskadin, haren bi dimentsio nagusiei erreparatzen badiegu: ekipazio maila eta IKTen erabilera-maila pertsonen zein erakundeen eskutik. Bistakoa da ordenagailuak ohiko gailu bihurtu direla, baita Interneteko banda zabala ere, edota telefonia mugikorra, gizarte-sarea, etab. Maila guztietan orokortzea lortzeaz gain (ebaki digitala apurtzea), oraingo helburu nagusia agertzen diren aukerei ahal den etekin ekonomikorik handiena ateratzea da.

Egun industria-gizartetik informazioaren gizartera migratzen ari gara, eta Euskadik atzean ez geratzeaz gain, onenen artean egoteko esfortzua egin behar du.

2.- AURREKARIAK.

- Informazioaren Gizartean Euskadi Plana 2010 Euskadiko Agenda Digitala
- Informazioaren Gizartean Euskadi Plana 2002-2005

Lehenengo planari eskerrak informazioaren gizarteko elementuak sartu dira (funtsezko funtzioak), eta hurrengo planak IKTen gizarteratze osoa du helburu: hazkunde iraunkorra eta bizi kalitatea informazioaren gizartea erabiliz eraikitzen duen gizarte baterantz abiatu.

IKTeak palanka bat dira, berrikuntza euskal gizarte osora heldu dadin: herritarrak, erakundeak eta administrazioa.

3.- TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Eusko Jaurlaritzako sail guztiak, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila horren guztiaren buru Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea euskal gizartea sustatzeko eta garatzeko. Hori guztia lehendakariak maiatzaren 8an eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen 4/2009 Dekretuan dago jasota.

4.- JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Ez da behar

b) Antolakuntza:

Sail arteko plana da, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak zuzenduko du, esparruen arabera deko deko ezarrita dagoen informazioaren gizartea sustatzeko lidergoaren arabera.

IKTeak transbertsalak dira eta etorkizuneko aukera era bai, horregatik, planeko buru izateak sustapen-estrategia bat sortzeko beharra dakar; alde batetik, estrategiak lankidetzako proiektuak bildu beharko ditu, lankidetzako sinergiak aprobetxatzeko eta diziplina anitzetan aritzeko. Bestetik, hori guztia inpakto bakanak eragingo dituzten sektoreko proiektuak bildu behar ditu estrategiak.

Honakoen ekarpenak nabarmendu behar dira:

- Lehendakariak, parte-hartzearen eta gobernu irekiaren nukleo gisa.
- Herrizaingoa. Sail horren nukleoa IKTeak herri-segurtasuna, bide-segurtasuna eta larrialdi-egoerak hobetzeko bideratzea da
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, IKTei buruzko ikasketak sustatzeko eta haien bidez ikastea sustatzeko ere; izan ere, IKTeak dira ezagutzaren motorra.
- Ekonomia eta Ogasuna, ezohiko aurrekontua ahalbidetzeko.
- Justizia eta Herri Administrazioa, administrazio eta gobernu elektronikoa sustatzeko ekimenen koordinaziorako.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak, etxe digitalaren nukleo gisa eta IKT garraioan aplikatzeko konponbideen gune.
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa, enpresen noranzkoko sustatzaile gisa.
- Enplegua eta Gizarte Gaiak, produktibitatea eta enplegarritasuna hobetzeko eskumen digitaletan duen garrantziagatik.
- Osasuna eta Kontsumoa, osasuna eta osasuneko zerbitzuak hobetzeko IKTeran aldeko apustua egin duelako.
- Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza, esparru birtual berriekin duen harremanagatik eta sektoreko apustuagatik.
- Kultura, euskara, kultura eta ondarea euskarri berrietan zaintzeko eta sustatzeko egindako ekarpenagatik.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

5211 aurrekontu-programa espezifikoa Euskadi Informazioaren gizartean. Programa horretan aurrekontu arrunta dago, eta, gainera, 15-20 milioi euro/urteko ezohiko finantzazioa.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

E-administrazioko, e-informatikako eta telekomunikazioko planekin koordinatzea (Justizia eta Herri Administrazioaren eskumena), baita sail guztietako IKT proiektu guztiekin ere.

e) Erakundeen harremanak:

Legebiltzarrarekin, foru-aldundiekin, enprekin, enpresa-erakundeekin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearekin (ZTBES) eta estatuko administrazio orokorrarekin eta beste autonomia—erkidegoetako administrazioekin.

5.- IZAPIDETZAREN FASEAK. ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|--------------------------------|
| 1. aldia: | Lerro estrategikoak eratzea. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 2. aldia | Plana egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 3. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 4. hiruhilabetea. |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2011ko 1. hiruhilekoa. |

6.- PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2015.

7.- PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Idazkaritza tekniko bat sortuko da, planak benetan aurrera egiten duela eta modu homogeneoan aurreratzen dela ziurtatzeko funtzioak bete ditzan. Era berean, jarraipeneko eta ebaluazioko beharrezko txostenak egingo ditu.

Hauexek izango dira idazkaritza teknikoaren eginkizunak:

- Plana kudeatzeko ereduaren aginte-koadroaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Informazioaren gizartearen estatistika-adierazleen jarraipena egitea, Euskadin zein erreferentziazko beste esparru batzuetan. (estatua, Europa, herrialde aitzindariak).
- Jarraipen txostenak egitea, barruan erabiltzeko zein argitaratzeko.

- Proiektuak garatuko dituzten arduradunei eta lan-taldeei aholkularitza teknikoa ematea, proiektuek hasierako baldintzak eta helburuak bete ditzaten, baita proiektu guztiak PESI 2010ekin bat etor daitezen ere.
- Zaintza teknologikoko lanak egitea, ezarritako helburuetan eta abian diren proiektuetan eragina izan dezaketen joerak aztertzeko; era berean, jarraibideak eman, joerek etorkizunean ezarriko dituzten egoeretara egokitzeko helburuak eta proiektuak.
- Hirugarren erakundeetako agentzia eta erakundeekin gertuko lankidetzak edukitzea, benetakoa. Horrela, datuak elkartrukatu eta erabakitzeko zentro nagusiei buruzko lehen eskuko informazioa egongo dira eskura, eta, ahal den neurrian, zentro horiek neurriak hartzea izango da helburua.
- Komunikazio-plan bat prestatu eta haren jarraipena egin, eta horretarako behar diren jardun guztiak burutu. Jardun horren bidez tartean diren eragileen parte-hartze aktiboa sustatuko da, eta edukiak hedatzeko euskarri-tresnak mantenduko dira (web-ataria, aldizkariak, etab).
- Batzorde-zuzendariaren eta batzorde teknikoaren saioak proposatzea, antolatzea eta koordinatzea, baita garapen egokia behar duten idazkaritza-funtzioak betetzea ere.

8.- PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Planak ezaugarri bereizle bat izango du: bere eraketa- eta burutze-metodologian dinamika berezi bat izango du. Dinamikak proiektuen zentralitatea eta proiektuen beren inpultsoa gaindituko du, eta antolaketako prozesuko elementuak estrategiaren helburu gisa sartuko ditu.

Plan horien helburua giza garapena eta talde-eraikuntza dira. Halako planetan, antzeman daitezkeen emaitzen balioaz gain, antzematen ez diren irabaziak sartzen dira ere. Antzematen ez diren horiek lankidetzak eta lidergo demokratikoa Eskatzen duen sareak sortzea dakarte berekin.

PESI 2010 ereduaren orientazio horrekin bat dator, eta agerikoa da hori; izan ere, PESI helburuekin bat datorren kudeaketa-eredua dakarren ekimena sortzen du. Dinamika berri horren ontasuna aztertu ondoren, plan berriaren berri aplikatzeko asmoa dago.

9.- GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Plana eratzean parte-hartzea eta lankidetzan aritzea. Lankidetzak planarekin lotuta dauden intereseko taldeekin litzateke: Eusko Jaurlaritzako sailak eta erakundeak, foru-aldundietako eta udaletako informazioaren gizartearen esparruko sailak, enpresen eta sozietateen erakundeak, harremana duten klusterrak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea, eta, oro har, informazioaren gizartearen interesa duten erakunde publiko eta pribatuak eta gizarte-taldeak.

10.- PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

Lehendakariak plana aurkeztuko die gizarteari eta tartean diren eragileei. Aurkezpen horren atzetik, programa eta jardun espezifikoak aurkezteko saio bereziak egingo dituzte, saila, eta, horrek, berezko komunikazio-planaren beharra dakar.

13. Euskadiko Energia Estrategia, 2020, 3E-2020.

1.- HELBURUAK

Euskadiko Energia Estrategiak 2020 urtea du jomuga, eta haren izatezko arrazoia honakoa da: kontuan hartuta Euskadik energia-kontsumo handia duela eta baliabide natural urriak dituela, energia eskura edukitzea. Energia nahikoa, kalitatezkoa eta garaiz, kostu lehiakorrek eta ingurumenarentzako modu iraunkorren. Hori guztia kontuan hartuta Euskadi estatuko elektrizitate- eta gas-sistemen parte dela, eta, beraz, arauak sortzeko gaitasuna mugatuta daukala. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen estrategiak sektoreko proiektu eta jardun zuzenagoetan parte hartzeko izan behar dira.

Gainera, energiaren ikuspegiaz gain, 2020 estrategiaren adierazgarrietako bat Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko lehiakortasuneko Politikekin integratzea eta teilkatzea izango da, bereziki I+Gkoak. Horrela, energia-estrategiarekin lotutako programak eta inbertsioak energiarekin lotutako enpresa-sektoreak bultzatu eta dinamizatzeko balioko dute, garapen teknologikoari, enpresa arteko lankidetzari edo negozio-aukera berriak sortzeari dagokionez.

2.- AURREKARIAK.

3E2010 (Euskadiko Energia Estrategia 2000-2010) eta aurrekoak.

3.- TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila: energia-estrategiaren jardun eta programa askok CO₂ gutxitzen laguntzen dute, eta, beraz, klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen dute. Era berean, jardun eta proiektu askok ingurumena hobetzeko ekarpenak dituzte.
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila: energiaren efizientiaren araudia eraikuntza-esparruan garatzea zuzenean lotuta dago Etxebizitza arloarekin. Garraio arloak energiaren efizientiari ekarpenak egin ahal izango dizkio, mugikortasunerako eredu batekin eta garraiobideetan berrikuntza teknologikoak eginez.
- Kultura Saila: bizikletaren estrategia integralaren harira egindako jardunak sinergiak eragingo ditu energiaren estrategiaren ekintzekin.

4.- JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ditu esleituta eskumenak Euskadiko energiari buruzko estrategiak eta lehentasunak definitzeko. Burutuko diren

jardun eta programa gehienek eragin gutxi izango dute araudian. Hala ere, arauak garatu daitezke, EAEko eskumenen barruan laguntza-planak kudeatzeko.

b) Antolakuntza:

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila izango da plan honen burua, eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) zuzeneko jarduna egongo da plana eratzean eta burutzean.

Programa eta estrategia bereziak dira, eta Industria eta Energia Sailburuordetzak etengabeko jarraipena egingo die. Lan horretarako EEEren laguntza jasoko du.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

3E2020 Estrategia garatzearekin batera, Euskadin inbertsioak mugiaraztea da helburua, zehazki, honako esparruetan: energia berriztagarrien instalazioetan, aurrezki-neurriak eta energia-efizientzia (industrian, eraikuntzan eta garraioan nagusiki), eta garapen teknologikoan. Behar diren funtsen zati bat publikoa izan behar da, inbertsio pribatua sustatzeko.

d) Gobernuko beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Plana jada aipatu ditugun beste sailekin lankidetzan arituz eta koordinatuz hedatuko da:

- Ingurumen Esparruko II Programa 2011-2014, Ingurumen Sailarena: EEEko teknikariek hartuko dute parte Programaren Batzorde Aholkularian.
- Klima Aldaketaren aurkako Plana: Energia eta Meategi Zuzendaritzaren parte-hartzea, baita EEEko teknikariena ere Klima Aldaketaren aurkako borrokaren EAEko Bulegoan.
- VISESA-EEEk energetikoki efizienteak diren etxadi berrietan batera egindako inbertsio-proiektuak.

e) Erakundeen harremanak:

Foru-aldundiekin, enpresekin, enpresa-erakundeekin, klusterrekin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sarearekin (ZTBES), unibertsitateekin eta estatuko administrazio orokorrekarekin.

5.- IZAPIDETZAREN FASEAK. ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|--------------------------------|
| 1. aldia | Lerro estrategikoen eta ekonomikoen dokumentua. | 2010eko 2. hiruhilekoa |
| 2. aldia | Plana behin betiko egin aurretik kanpoko eragileek egindako ekarpenen eta alde zuzeneko txostenen analisia. | 2010eko 3. hiruhilekoa. |
| 3. aldia: | Planaren azken bertsioa egitea. | 2010eko 4. hiruhilekoa. |

| | | | |
|----------|------------------------------------|-----------------------|----|
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2011ko hiruhilekoa | 1. |
|----------|------------------------------------|-----------------------|----|

6.- PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2020.

7.- PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Urtero, sailak jarraipen-txostena egingo du, eta, bertan, aurreko urtean EAEk izandako energia-balantzearen kopuruak jasoko dira. Datuak energia-estrategian ezarritako helburuekin alderatuko dira, burututako jardunak eta izandako garapena ebaluatuko dira eta hurrengo ekitaldietarako gomendioak eta neurriak planteatuko dira.

8.- PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Lan-talde espezifikokoak sortuko dira, tartean diren erakundeen parte-hartzearekin, eta, taldeen bidez, guztion intereseko diren programen garapena eta jarraipena egingo da.

9.- GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Oinarrizko proposamenaren dokumentua kontrastatzeko epean (1.aldia/ 2010eko apirila-iraila), dokumentua emango zaie enpresetako eta gizarteko eragile (ekologisten erakundeak, kontsumitzaileen elkarteak, udalak, etab.) guztiei, betiere, iritzia emateko gogoz badira edo strategiaren azken bertsiorako ekarpenak egiterik badute.

Egun, ez dago metodologia berezirik bestelako eragileek plana eratzen parte har dezaten, zuzeneko parte-hartzeaz harago: tokiko administrazioekin egingo diren proiektuak, enprekin lankidetzaz, etab.

10.- PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

Plana Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak aurkeztuko die tartean diren eragileei, saio bakar batean edo hainbatetan.

8. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

14.-Enplegurako EAEko Estrategia 2011/2013.

1. HELBURUAK.

2011/2013 Enplegurako EAEko Estrategiak helburu nagusia dauka, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatzea. Izan ere, sustapen horren bidez EAEko biztanleen bizi-baldintzak hobetuko dira, eta bazterkeriaren aurkako borroka indartuko da.

Helburu hori lortzeko, langabezia-tasa murrizteko eta egungo krisia gainditzeko estrategiak garatuko dira. Horretarako askotariko jardunak sustatuko dira: lanpostuak sortu eta mantentzeko, langileen gaitasunak hobetzeko eta merkatuarekin egokitzeko eta enpresen lehiakortasuna handitzeko. Era berean, neurri bereziak jarriko dira pertsona zaurgarrienak lan-merkatuan sartzeko eta bertan irauteko, bereziki gazteak eta luzaroan langabezia egon direnak.

Egora sozio-ekonomikoaren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa eginda eta gizarteko eta enpresa-giroko eragileek komunean dituzten helburuak lotzeko bidea emango duen lan-merkatuaren beharrak aztertuta, 2011-2013 Enpleguaren Euskal Estrategiaren ardatzak egituratu dira. Ardatz horien erronken eta lehentasunen artean honakoak daude: mugikortasuna hobetzea, gaitasunak hobetzea, etengabeko ikaskuntza indartzea, enplegurako zerbitzu-publikoa hobetzea (zerbitzu hori enplegu-politika aktiboak EAEri transferitu ondoren sortuko da).

2. AURREKARIAK.

Jardun hori Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak IX. Legegintzaldiaren hasieran Legebiltzarrean hartutako konpromisoarekin bat dator. Izan ere, hark esan zuen enplegua defendatu eta sustatu behar zela egun daukagun krisi sakona gainditzeko lagunduko duten estrategiak garatuz, eta, aipamen berezia egin zuen pertsona zaurgarrienak lan-merkatuara sartu eta bertan mantentzeko dituzten arazoei buruz.

2011-2010 Enplegurako EAEko Estrategiaren aurrekariak dira EAEko plan estrategikoak:

- Enplegurako Erakunde arteko Plana (2000-2003).
- Enplegurako Erakunde arteko Plana (2003-2006).
- Enplegurako Erakunde arteko III. Plana (2007-2010).

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari dagokio Enplegurako EAEko Estrategia 2011-2013 sustatzea eta bideratzea; izan ere, harenak dira gai hauetako eskumenak: lanbide-orientazioa, enplegurako prestakuntza, laneko bitartekaritza eta enpleguaren prospekzioa eta sustapena. Beste sail hauek ere arituko dira planean:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, lanbide-heziketan eta etengabeko ikaskuntza dinamizatzen dituen eskumenengatik.

- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, eskumenak dituelako honako gaietan: industria-politikako jarduna, berrikuntza teknologikoa eta informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea eta garatzea.

- Kultura Saila, Gaztedia eta Ekintza Komunitarioa Zuzendaritzaren bitartez; arrazoia gazteek jasaten duten langabezia da.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Abenduaren 23ko 2/2009 Legeak EAEko aurrekontu orokorrak onartzen ditu 2010 ekitaldirako. Eta lege horretako bigarren xedapen gehigarriak zuzenbide pribatuko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde publikoa sortu zuen. Erakunde horren funtzioen artean honakoak daude: enplegua sustatzeko plan bereziak diseinatzea eta betearaztea beharra duten tokiko edo sektoreko esparruetan, eta horrela tartean diren eragileen adostasuna bultzatzea. Era berean, enpleguari laguntzeko diagnosi integraleko eragiketarak garatu eta laguntza-jardunak gauzatu.

Enplegu-estrategia Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak hartuko du bere gain; hala ere, aurretik dekretu bidez onartu beharko dira erakundeko estatutuak. Lanbideek esku hartzeko tresna zehatzak sustatuko ditu.

Kontuan hartu behar da IX. Legegintzaldirako (2009-2013) onartutako egutegia. Egutegia 2009ko azaroaren 17ko Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onartu zen, eta han ezarri zuten Enpleguaren Euskal Legea 2011ko bigarren seihilekoan onartuko zela. Lege horren helburuen artean, honakoak daude: EAEko enplegu-politikaren helburuak eta printzipio gidariak ezartzea, azkenean enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lortzeko, eta egiturak eta tresnak erregulatzea, enplegu-politikak sustatzeko eta garatzeko.

b) Antolakuntza:

LANDIBE – Euskal Enplegu Zerbitzuak tokiko eta sektoreko esku-hartzerako beharrezko tresnak sustatuko ditu, betiere, aurretik erakundearen estatutuak dekretu bidez onartu ondoren.

Era berean, Enplegurako EAEko Estrategiak baliteke jarraipen- eta ebaluazio-organoak sortzea aurreikustea, sail artekoak zein Gizarte Elkarriketako Mahaian adostekoak diren gaietarako buruzkoak. Eta, organo horietan, gaian tartean diren eragile guztiek parte hartuko dute.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Ziurrenik, plana estrategiaren sustatzailearen aurrekontuarekin beteko da, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko aurrekontuarekin, alegia. Bestela, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko aurrekontua ere erabiliko da, eta horren bidez estatuko administrazioaren funtsetako esku-aldaketa erabiliko da. Funtsen esku-aldaketa enpleguko politika-aktiboak EAERI transferitzeagatik etorriko da.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin koordinazio-mekanismoak sortzea aurreikusi da, sail horiek eskumenak baitituzte 2011-2013 Enplegurako EAEko Estrategiak eragina izango duen jardunetan.

e) Erakundeen harremanak:

Enplegurako EAEko Estrategiak erakunde arteko harremanak maila guztietan garatzea eskatzen du.

- Europako erakundeekin, baita EBek krisiari aurre egiteko eskaintzen dituen baliabideekin ere, hala nola, Europako Gizarte Funtsa eta Globalizazioarekin egokitzeko Europako Funtsa.
- Estatuarekin: Lan eta Immigrazio Ministerioa, Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoa –SPEE.
- Gainerako autonomia-erkidegoekin.
- Lurralde historikoekin: foru-aldundiak.
- Tokiko administrazioarekin: EUDEL.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

-Ildo estrategikoak egiteko dokumentua: 2010eko 2. hiruilekoa.

- Enplegurako EAEko Estrategia Gobernu Kontseiluan onartzea. 2010eko laugarren hiruilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010eko lehen hiruilekoan diagnosi fasea burutuko da, eta, ondoren, 2010eko hirugarren hiruilekoan, ildo estrategikoak eratuko dira eta bideak irekiko dira beste sailek eta eragileek parte har dezaten.

Jarduera onartu ondoren (2010eko laugarren hiruilekoan onartzea aurreikusi da), bukatu arte burutuko da, 2013 arte.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Etengabeko jarraipenaren eta zati bateko eta bukaerako ebaluazioen organo arduraduna Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila da, edo Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. Organo arduradunak burutuko ditu Enplegurako EAEko Estrategiatik sortzen diren jardunak eta haien jarraipenak eta ebaluazioak.

Kudeaketaren eta emaitzen adierazleak, eta Enplegurako EAEko Estrategiaren (2011-2013) eragina neurtuko dutenak behin betiko dokumentuan ezarriko dira.

Eragina neurtzeko honakoak hartuko dira kontuan: enpleguaren egonkortasunaren adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak eta langabezia-tasaren murrizketa. Adierazle horiek aplikatzeko genero eta aukera-berdintasun ikuspegia aplikatuko da egiten den jardueran eta neurketa bakoitzean.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Lankidetza-eredu bat definitze aldera, eredu onartu arte sailen arteko harreman informalak izango dira, eta, estregia abiatu ondoren, goi-mailako erakunde arteko batzordeak eta batzorde tekniko iraunkorrak sortuko dira, Enplegurako EAEko Estrategiako lan-planaren aldiak koordinatzeko.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Enplegurako EAEko Estrategia eramango du estatuko eta autonomia-erkidegoetako parte-hartzea duten organoetara, bertan koordinatzeko:

- Enpleguaren Sektore Konferentzia. Lan eta Immigrazioko Ministerioa.
- Lanbide Heziketako Kontseilu Orokorra.
- Enplegu Sistema Nazionalaren Kontseilu Orokorra. Lan eta Immigrazioko Ministerioa.
- Lanbide Heziketako EAEko Kontseilua.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Gizarte Elkarrizketarako Mahai Orokorrak -2009ko uztailaren 2an hasi zen lanean-, eta enpresa-elkarteetako, sindikatueta eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko ordezkariak hainbat erabaki garrantzitsu hartu dute, enpleguko politika aktiboen transferentziak dakarren erronkari aurre egiteko, eta enplegua eta prestakuntza sustatzeko neurriak aukeratzeko.

Enplegurako EAEko Estrategia 2011-2013 Gizarte Elkarrizketarako Mahaian parte hartzen duten gizarte- eta enpresa-eragileek jorratzeko eta zehazteko gaia izango da.

10. PLANAREN BERRI ZABALTZEKO ESPARRUA.

Enplegurako EAEko Estrategia 2011-2013 herritarrei agertuko zaie Gobernu Kontseiluak onartu ondoren eta Legebiltzarrean aurkeztu ondoren. Estrategiak hedatze propioa izango du, eta hedabide-mota eta eduki ezberdinak aukeratu dira hartzaileen arabera. Planak eta jarduerak hedabideetan aurkeztuko dira, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren erabaki gisa.

Estrategia foru-aldundiei eta Eudeli aurkezteko, bilera teknikoak egingo dira. Bestalde, interesatuta dauden herritarrek administrazioarekin harremanetan egoteko tresnak (Irekiataria) izango dituzte beren iritziak eta iradokizunak helarazteko.

15.- Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko EAeko II. Plan Estrategikoa, 2011-2014.

1. HELBURUAK.

2011-2014 Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko EAeko Plan Estrategikoko helburuak honakoak dira:

- Enpresetan segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzea.
- Enpresetan prebentzioa sartzeta.
- Prebentzioari buruzko kontzientziazioari eta sentsibilizazioari ekarpenak egitea.
- Langileei prebentzioari buruko prestakuntza eta informazioa eman, eta gaian parte hartzera bultzatu.
- Sindikatuek, enpresek eta administrazioak parte-hartze handiagoa izatea prebentzian.
- Laneko istripuak eta gaixotasunak murriztea.

2. AURREKARIAK.

Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko EAeko Plan Estrategikoa, 2007-2010.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, eta laneko gaixotasunen esparruan Osasun eta Kontsumo Sailaren parte-hartzea.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Ez da ezarri.

b) Antolakuntza:

Ez dauka eraginik sailetan.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Planak berak ezarriko du aurrekontua.

d) Beste merezimendu batzuk:

Osasun eta Kontsumo Saila; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

2010ean hasi, izapidetu, egin eta onartuko da.

- Ildo estrategikoen agiria: 2010eko lehenengo hiruhilekoa.
- Gobernu Kontseiluak plana onartzeko aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011-2014.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Osalanek kudeatuko du plana, eta OSALANeko kontseiluak egingo ditu jarraipena eta ebaluazioa. Azken bi horiek burutzeko betearazpen adierazleak ezarri, eta horiek aldian-aldian kontrolatzeko bideak jarriko ditu.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Plana idazteko garaian tartean diren erakundeekin izango diren harremanak. Beste sail batzuek parte hartzen duten kasuetarako betearazpen- eta koordinazio-batzordeak ezarriko dira.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Planaren izaera dela eta, behar-beharrezkoa da enpresak, enpresariak, langileak eta horien ordezkariak parte hartzea plana betearazten eta jarraitzen; izan ere, plana lanaren segurtasunari eta osasunari buruzkoa da, eta, hedapenez, enpresa giroari buruzkoa.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

- Komunikabideak.
- Lanaldiak.
- Mahai-inguruak.

16.- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana.

1.- HELBURUAK

Joan den mendeko azken hamarkadetan egon diren gizarte-aldaketek (emakumearen emantzipazioa, emakumeak lan-munduan sartzea, harreman afektiboak eta sexualak liberatzea, gutxiengo deritzen taldeen eskubide zibilak zabaltzea, etab.) eta jendartean bizitzeak duen zailtasunak egun dugun familia-ereduan izan duten eragina, eta familia-eredu ugari sortu dira (nuklearra, guraso bakarrekoa, pertsona bakarrekoa, berregituratutakoa, arraza artekoa, homosexuala, etab.). Aldi berean, familiak gizarte-funtzioak modu autarkikoan burutzeko gaitasuna bukatu da.

Familia-ereduak ugaritzeaz gain, lehen aipatutako aldaketek bestelako eraginak izan dituzte, hala nola, mendebaldeko gizartearen jaiotza-tasa baxua. Tasa horri dagokionez, Euskadi Europako azken postuetan dago.

Alderdi horrek eta beste askok behar bat eragin diete erakundeei, familiekin duten esku-hartzea birplanteatzeko: lehen eredu liberala zen, eta estatuak babesia ematen zuen krisi-egoeran edo babesik gabeko egoeran. Eredu berria zuzenbide subjektibokoa da; hau da, administrazioek familiei laguntzen diete laguntza edo zerbitzu bidez, eta, aldi berean, familia baten ziklo osoan sustapena, eta laguntza ematen diete, eta, horren bidez, biztanleria gaztetuko dugu, familiak bere funtzioan betetzen jarraitzea lortuko dugu, eta balio etikoak eta demokratikoak transmititzen giltza-elementua izaten jarraituko da.

Familia-politika hori babesteko, BPGren 2,2 bideratuko dute Europako gastuaren batezbestekoa berdintzeko hemen.

2. AURREKARIAK.

Familiei laguntzeko erakunde arteko planak: I. Plana, 2002-2006 eta II. Plana 2006-2010.

Era berean, Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea aipatu behar da. Lege hori garatzeke dago, eta helburu nagusiak erdiesteko European seme-alabengatik ematen dituzten laguntzak berdindu beharko dira. Helburu horiek 2020rako legean ezarri dira.

Bestalde, hauteskunde-programak konpromisoa hartu zuen abian jartzeko pertsonen bizitza errazteko neurri asko eta garrantzitsuak, eta familia plurala babestearen ikuspegitik egitea da asmoa. Familiari buruzko III. plan honetan *Ezintasunak dituzten kideak dituzten familientzako laguntza-plan* (politika-programan jaso) eta *Hazkunde Demografikorako Planak* (lehendakariak inbestidura saioak aipatutakoa) integratuko dira. Izan ere, helburuetako bat familiek seme-alabengatik jasotzen dituzten laguntzak luzatzea da, horrela familiek babesia sentitu dezaten zenbat seme-alaba eduki erabakitzerakoan.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

- Herrizaingo Saila; zaurgarritasun-egoera berezian dauden familientzako neurri bereziak bideratzen dituzte sail horretan, besteak beste, genero-indarkeriaren biktimen familiak tratatzea.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, familiei laguntzeko neurri bereziak hezkuntzan garatu ahal izateko.
- Ekonomia eta Ogasun Saila, baliabide ekonomikoak esleitzen eta zerga-politikak koordinatzen eskumenak dituena.

Helburua legeak 6. artikuluan dioena betetzea izango da; alegia, familia-errenta estandarra ezartzea. Era berean, 24. artikulua ere bete beharko da: zerga-neurriak homogeneizatzea.

- Justizia eta Herri Administrazio Saila. Justizian eskumenak ditu, banaketak eta dibortzioak bideratzen dituzten familia-epaitegiei dagokienez bereziki. Era berean, genero indarkeriaren biktimei arreta ematen die eta terrorismoaren biktimen familiak ere hartzen ditu. Bi familia mota horiek zaurgarritasun handiko familiazat jotzen dira, eta, beraz, neurri bereziak behar dituzte.

- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Sail horrek etxebizitzako eta lurzoruko eskumenak ditu, baita garraiokoak ere, eta horrek Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legean ezarritako neurriak betetzen lagunduko luke.

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, honako arloetan eskumenak dituelako: gizarte-zerbitzuak, gizarteratzea, familia-politika, lana eta familia uztartzea.

- Kultura Saila, aisialdiko, kiroleko eta gizarte-ekintzako kultura-gaietan eskumenak dituelako. Sail horren jardunak lagunduko du 13/2008 Legeko 20. artikuluan ezarritakoa betetzen.

- Osasun eta Kontsumo Saila; izan ere, jardun integrala egiteko, aipatu sailak osasuneko eskumenak baliatu beharko ditu planaren baitan.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Agian, arau aldaketak egongo dira; nagusiki, dekretuak edo aginduak egingo dira.

b) Antolakuntza:

Plana egiteko ez da gizarte-baliabide gehiagorik beharko. Hala ere, onartuko diren neurrien arabera, baliteke langile gehiago behar izatea.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Diru-kopuru gehigarria jarriko da, onartuko diren neurrien gastuei aurre egiteko.

Behar den erakunde arteko adostasuna lortuz gero, planeko neurriak erakunde ezberdinek finantzatuko dituzte, legeak esleitu dizkien eskumenen arabera.

Gastu nabarmenenak hauek izango dira: seme-alabengatik ematen diren laguntza ekonomikoak; jakiak bermatzeko funtsaren bateraketa; jada martxan diren zerbitzuen funtzionamendua malgutzea: hezkuntza, kultura...; gizarte-zerbitzu berriak sortzea, baita gizartean eta lanean txertatzeko eta familia bateraketarako ere. Aldi honetan ezinezkoa da kostuak gehiago zehaztea.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Jada adierazi direnez gain, kontuan hartu beharko lirateke EAEko administrazioak laguntzeko dituen instantziak: DIAE, EJIE, DIT, funtzio publikoa, etab. Emakunde ere aipatu behar da, generoaren arloan burutuko diren jardun nagusiak orientatzeko funtsezko elementua delako.

e) Erakundeen harremanak:

Foru-aldundiekin, EUDELekin eta EAEko hiru hiriburuekin harremanak izango dira, baita Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioarekin eta Europako hainbat erakunderekin.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

1. aldia.- Erakunde arteko II. plana ebaluatzea, eta familiek duten egoeraren gizarte-diagnosia egitea, familiei laguntzeko erakunde arteko III. plana parte-hartzearen bidez diseinatzeko: 2010 urtea.
2. aldia.-Ildo estrategikoen dokumentua.: 2010eko 4. hiruhilekoa.
3. aldia.-Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2011ko 2. hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011-2015 aldia

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

- Adierazleen aginte-koadro bat ezartzea, hiruhilero jarraipena egiteko; koadroan adieraziko dira jardunak zer neurriraino bete diren adierazten duten datuak.
- Planean sartuta dagoen sail bakoitzak urte bakoitzean burutzen dituen jardunen memoria egitea. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko estatistika-organoaren parte-hartzearekin ustiatuko da, eta, bestela, Ejieren bidez.
- Bi urtetik behin egiten den ebaluazioa (estatistika-organoak edo Ejiek zuzendua. Ebaluazio horretarako kanpoko kontratazioa egingo da, eta joerak eta eskaeraren garapena aztertuko dira, baita burutu beharreko jardunetan egin beharreko aldaketak ere. Halaber, aurrekontua egokitzeko baliatuko da.
- Koordinazio-organoa Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritza izango da. Esparruko langileak izango ditu, eta informatikako tresna berezia izango dute, sail eta erakunde artean jardun ahal izateko.
- Sail bakoitzean kudeaketa-taldeak egongo dira, planean sartu diren programen edo zerbitzuen arabera. Taldeak berriak badira, kudeaketa egiteko langileak eta bitartekoak jarri beharko dira.
- Jarraipen- eta ebaluazio-organoak (barrukoak, kanpokoak, mistoak...).

Aurreikusitako eragina:

- Jaiotze-tasa pixkaka hobetzea.
- Hurrek eta nerabeek arrisku eta babes gabeko egora gutxiago jasatea.

- Guraso bakarreko familietan osasuna hobetzea.
- Familien bizi-kalitatea hobetzea.
- Eskolako huts-egiteak murriztea, baita eskola-porrota ere.
- Balio etiko eta demokratikoen transmisioa hobetzea.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Foru-aldundiek, Eudelek, udalek eta EAEko hiru hiriburuek hartuko dute parte. Erakundeek Familiaren Batzorde Iraunkorraren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluko Haurren eta Nerabeen Batzordearen bitartez jasoko dute informazioa. Gainera, erakunde guztietako arduradun politiko eta tekniko guztiekin harremana egongo da.

Parte-hartze organoa Familiaren Euskal Kontseilua izango da, eta kontseilu horrek hiru batzorde ditu (bat erakunde artekoa, beste bat sail artekoa eta beste bat iraunkorra). Gainera, plana burutzeko beharrezko lan-taldeak bideratuko dira.

Honakoa izan liteke metodologia: Beren-beregi sortutako lan-taldeetan bertaratzekoa, parte-hartzea ahalbidetzen duen aplikazio baten bidez birtuala, eta ebaluazioen eta jarraipenen irakurketen eta ekarpenen bitartez dokumentala.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Familia, haurrak, nerabezaroa, zaharrak, eta emakumeak esparruetan jarduten diren hirugarren sektoreko erakundeak, enpresa-erakundeak, erreferentziazko gaiekin lotura duten kontseilu eta batzordeetako elkargo profesionalak eta ordezkariak: familia, haurrak eta nerabeak, eta gizarte-zerbitzuak.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

EAE izango da hedapen-esparrua. Hedapenerako honako bideak baliatuko dira: jakinarazpen-kanpaina publikoak, bide telematikoak, familia-kongresua, eragin berezia jasoko duten gizarte-sektoreentzako jakinarazpena, konferentzietan eta ikastaroetan parte-hartzea, argitalpenak, komunikabideetan azaltzea oro har, etab.

17.- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, 2011-2014.

1. HELBURUAK.

2011/2014 Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren helburua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema artikulatzea, antolatzea, hobetzea eta indartzea. Gizarte-zerbitzuen mapa jasoko du, eta maparen helburua zerbitzu eta prestazio bakoitzaren zona egokia zehaztea izango da: lurralde-antolamendua ezarriko du, zona bakoitzeko estalduraren gutxieneko eta gehiengo intentsitatea zehaztuko du sistemako zerbitzu bakoitzarentzat.

Era berean, memoria ekonomikoa jasoko du, prestazio eta zerbitzu bakoitzaren kostu-aurreikuspenak zehazteko; eta lan hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzeko eskumenak dituzten administrazio guztiei buruzkoa izango da.

2. AURREKARIAK.

2007 ekitaldian egin zen *Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako neurri estrategikoak aplikatzeko Plana*. Baina dokumentuan ez zituen kontuan hartu Gizarte Zerbitzuen Legea indarrean sartzean aplikatuko ziren ezarpenak, gai formalei dagokienez (legeak lau urtero egin beharreko plangintza ezartzen du, eta proposatutako plana 2010ean bukatu zela ezarri zuten) zein edukiei dagokienez.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten sail guztiak (12/2008 Legeko 35.1.5 artikularekin bat, Gizarte Zerbitzuen plan estrategikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren derrigorrezko txostena jaso beharko du, onartu aurretik.).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko ezarpen bat da, eta planaren garapena legeko arauak garatzeri estuki lotuta dago.

b) Antolakuntza:

Gobernuak ekintza zuzeneko zerbitzuak onartzeak Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza berrantolatzea ekar lezake, zerbitzuen kudeaketa berrmatze aldera.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

2010ean memoria ekonomikoa egingo da, baita gizarte-zerbitzuen mapa ere (estalduren definizioa, intentsitateak, ratioak, zerbitzuen hedapenaren kronograma...) eta legea garatzeko epean behar ekonomikoak eta finantziakoak definituko dira (2008ko abendutik kontatzen hasita zortzi urte).

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Gizarteratze planaren garapena, eta plangintzan sartutako gaiekin lotutako beste planak eta jarduerak Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoko ildo estrategikoak eta helburuak kontuan hartuta garatuko dira, eta alderantziz.

e) Erakundeen harremanak:

Plana Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman erantzukizunak dituzten administrazioekin adostutako tresna izan behar da; alegia, EJrekin adostez gain, foru-aldundiekin eta udalekin adostu beharko da.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

- Aurreikusitakoaren arabera, ildo estrategikoen dokumentua 2010eko bigarren hiruhilekoan egingo da.
- Plana Gobernu Kontseiluan onartzeko epea 2010eko 4. hiruhilekoa da.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2014.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sisteman aurreikusitako parte-hartze organoen bidez planaren urtez urteko jarraipena egingo da, baita ikuskaritza nagusiko organotik ere. Jarraipena egiteko Gizarte Zerbitzuen Sistema erakunde artekoa dela hartuko da kontuan, eta administrazio maila bakoitzak sistemako zerbitzu jakin baten gaineko eskumenak dituela.

Planak aginte-koadroa izango du, planean bertan definitutako ildo estrategikoak eta Gizarte Zerbitzuen Mapan markatutako helburuak betetzeari buruz, hedapenari, estaldurari, intentsitateari, etab. dagokionez.

Plana ebaluatzeko Zerbitzuak eta Prestazioak zorroan zehaztutako zerbitzuak hartu beharko dira kontutan, eta horiek Gizarte Zerbitzuen 2008/12 Legeko katalogoan daude deskribatuta.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

12/2008 Legean Erakunde arteko Koordinazio Organoa ezartzen da, eta funtsezko elementua da sistema garatzeko erantzukizunen hiru maila administratiboetan lankidetzan bermatzeko.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak erakundeen zein gizarte-esparruaren parte-hartzea dauka. Gizarte-eragileak (enpresaburuen elkarteak eta sindikatuak), gizarte esku-hartzeko erakundeak, sistemako erabiltzaileen elkarteak, sektoreko parte-hartzearen beste kontseiluen ordezkariak, etab.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

Euskal Autonomia Erkidegoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kudeaketan parte hartzen duten erakunde publikoak eta pribatuak eta herritarrak oro har.

Era berean, plan estrategikoaren berri eman beharko zaio Eusko Legebiltzarrari (Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 35. artikuluko 1. atala).

18.- Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Plana, 2011-2013.

1. HELBURUAK.

Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren EAEko planak esku-hartze publikoaren gangaren gako nagusi izan nahi du immigrazioan, bizikidetasunean eta kulturartekotasunean. Helburua da gobernuaren jarduna orientatzea eta artikulatzea, honako gaiei dagokionez: harrera, integrazioa eta bizikidetasuna EAEko etorkinekin. Halaber, gobernuko sail guztiekin koordinatuko ditu ekintzak.

2. AURREKARIAK.

- Immigrazioari buruzko EAEko I. Plana (2001-2005).
- Immigrazioari buruzko EAEko II. Plana (2007-2009).

Egun Immigrazioari buruzko EAEko II. Plana ebaluatzeko unea da, eta, era berean, immigrazioaren aurrean gobernuaren jarduna bideratuko duten zuzentarauk ezarri behar dira; izan ere, immigrazioa gero eta handiagoa da.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Etorkinak hartzeak eta integratzeak berezko izaeragatik kezka sortzen duten jardunak dira, eta gobernuko sailetan banatuta dauden politikak astintzen dituzte. Nagusiki, hauek dira eragindako sailak: Enplegua eta Gizarte Gaiak; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Osasuna eta Kontsumoa; Kultura; Herrizaingoa; Justizia eta Herri Administrazioa; Etxebizitza, Herri Lan eta Garriak.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Ez dago legezko xedapenik plana burutzeko derrigortasuna ezartzen duenik; hala ere, 2009ko azaroaren 17an Gobernu Kontseiluak erabaki bidez onartu zuen Legegintzaldiko Egutegian aurreikusi dela *Etorkinak hartzeko eta integratzeko eta kultura arteko bizikidetasunerako lege* bat izapidetzea. Lege horrek araudi-esparru berria ezarriko luke.

b) Antolakuntza:

Plan hau egitea eta ebaluatzea lotuta dago sail arteko batzorde baten sorkuntzarekin, baita EAEko etorkinen integrazioarako eta parte-hartzerako Foroa eraldatzearekin (berezko kontsulta-organoa).

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Sustapen-organoaren berezko aurrekontuaz gain (Immigrazio Zuzendaritza), planak jarduera bereziak ezarri beharko ditu, baita tartean diren sail bakoitzak jasotakoentzako jarduera osagarriak ere. Bi aldagai horiek aintzat hartuta, planak 10-12 milioi euro urteko aurrekontua duten jarduerak izan litzake.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Plana politika transbertsaleko tresna da, horregatik 3. atalean aipatutako sailen jarduera bereziak jaso behar ditu.

e) Erakundeen harremanak:

Erakunde arteko esparruan, foru-aldundiekin egongo dira harremanak, eta, bereziki, udalekin.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK. AURREIKUSITAKO ALDI BATERAKO EGUTEGIA.

-Ildo estrategikoen dokumentua.: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

-Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2011ko hirugarren hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2013.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Honako organoek egingo dituzte planaren jarraipena eta ebaluazioa:

- Immigrazio Zuzendaritza, planaren kudeatzaile delako.
- Etorkinak integratzeko sail arteko batzordea (sortu behar da), jarraipenaren arduradun gisa.
- Etorkinak integratzeko Foroa eta haren batzorde iraunkorra eta batzorde sektorialak; kontsultarako organo gisa.
- Integrazio eta Kultura arteko Bizikidetasun Zerbitzua – Biltzen. Zerbitzu hori Immigrazio Zuzendaritzaren mendekoa da, eta Integraziorako Foroaren idazkaritza-tekniko gisa jardungo da.

Planak hainbat adierazle kualitatibo eta kuantitatibo izango ditu, jarraipena eta ebaluazioa errazteko. Halaber, planean jaso diren jarduerak izan duten eragina neurtzeko balioko dute adierazleek.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Foru-aldundiek eta udalek parte hartzeko espazio bat izango dute, planarekin bat datozen eta haien eskumeneko diren jarduerak planean gehitzeko.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Enpresa-elkarteak eta sindikatuak, etorkinei laguntzen dieten erakunde sozialak, etorkinen elkarteak eta azken bi kategoria horietako sareak eta federazioak, eta ez da kontuan hartuko EAEko etorkinen integraziorako eta parte-hartzerako Foroan sartuta dauden.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

Plana immigrazio gaietan diharduten EAEko erakundeetan, ikastetxeetan eta gizarte-esparruan aurkeztuko da. Era berean, planaren berri zabalduko da estatuan, migrazio-politika koordinatzeko autonomia-erkidegoen eta estatuaren arteko organoen bitartez. Europan ere emango da planaren berri, EAEk parte hartzen duen immigrazio-sareetan.

Plana hedatzeko bide hauek erabiliko dira: aurkezpen publikoak, material berezia eta Immigrazio Zuzendaritzako hedabide arruntak.

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA.

19.- EAEko Osasun Plana, 2012-2020.

1. HELBURUAK.

Komunitate baten osasunari eragiten dioten alderdi asko jorratzeak dakarren erronkari erantzuna emateko eta osasun-sistemaren eta tartean dauden eragile guztien politiken norabidea markatzeko garatu dira osasun-planak. Hortaz, osasun-esparrua bakarrik jorratzen ez duen gobernu-plana da. Osasun-planak sektore anitzeko jarduera proposatu du, biztanleen osasun-maila handitzeko. Ondorioz, Osasun Sailarentzako eta komunitatearen osasunarekin zerikusia duten eragile, udal eta erakunde batzuentzako erreferentzia gisa erabili beharko da EAEko Osasun Plana.

Hala, tartean dauden zenbait zerbitzuren jarduera biztanleriaren osasun-premia nagusietara bideratzeko aukera emango duten osasun-politikaren ildo estrategikoak definitzea da planaren xedea. Ildo horretan, “osasun” kontzeptua “sanitario” hitzaren sinonimo ez dela ekarri behar da gogora eta, beraz, biztanleriaren osasunarekin zerikusia duten esku-hartze askok osasun-sistemaren berariazko eskuduntzak gainditzen dituztela eta beste agente batzuk sartzen dituztela tartean.

Osasun planek honako bi helburu hauek dituzte:

- 1.- Biztanleriaren osasuna hobetzea, bizi-iraupena eta bizitza osasuntsuaren urte-kopurua handituz.
- 2.- Pertsona ahulenen osasuna hobetzea eta osasunaren gizarte-desberdintasunak gutxitzea.

Osasun-arazoen larritasuna eta garrantzia, datozen urteetan izango den ebaluazioaren balioespena, gizarte- eta ekonomia-eragina, esku-hartze eraginkorren erabilgarritasuna eta baliabideak eta esku-hartzeen eraginkortasuna baloratzeko aukera aintzat hartuta burutuko da plan honek hizpide dituen lehentasunezko eremuen aukeraketa.

2. AURREKARIAK.

- 1988an Euskadirentzako osasun politika 2000 egin zen. Aipatu politika 2000. urtean osasuna guztiontzat Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) Europako Eskualde Bulegoaren ekimenaren esparruan sortu zen.

- Ondoren, Osasuna Zainduz aldaketa prozesuaren barruan, osasun-plana 1994 diseinatu eta abian jarri zen. Ildo horretan, osasun-laguntzarako zerbitzuen ekintza jakin batzuetan osasun-politikak txertatzerakoan lortutako erdiespenak aipatzeak merezi du: osasun-zerbitzuen erosketan planaren helburuak benetan eta modu eraginkorrean integratzea osasun-planaren ezaugarri berezia da.

- Azkenik, Osasun Planak 2002-2010 Euskadiko osasun-politikak eguneratu nahi zituen, aurreko osasun-planen esperientzia aprobetxatuta.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

1.- Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila:

Koordinazioa Droga Gaietarako Zuzendaritzarekin.

Koordinazioa Osalanekin.

Koordinazioa Gizarte Gaietarako Zuzendaritzarekin.

2.- Hezkuntza Saila:

Prebentzio- eta sustapen-ekintzak ezartzea.

3.- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Koordinazioa aireraren kalitatea kontrolatzeko ekintzetan eta jardueretan.

Airearen kutsadura, bai biotikoa bai abiotikoa, zenbait osasun-arazoren erantzule izan daiteke. Erakunde batzuk arduratzen dira airea zaindu eta kontrolatzeko jardueraz. Hala, Osasun Sailari dagokio kutsatzaileen kontzentrazioa zehazteko ardura.

4.- Herrizaingo Saila

Koordinazioa Genero Indarkeriaren Zuzendaritzarekin.

5.- Ekonomia eta Ogasun Saila: EUSTAT:

Osasun-planaren ebaluazioa egiteko datuak ematea.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa (13. artikulua):

“13.1.- Euskadiko Osasun Plana sistema planifikatzeko eta programatzeko lanabes nagusia da; izan ere, plan horren bidez politika sanitarioko osasunari buruzko oinarriko helburuak ezarriko dira eta, era berean, haren bidez zehaztuko dira plana indarrean dagoen bitartean egongo diren baliabideekin atenditu beharreko lehentasunak.

13.2.- Eusko Jaurlaritzari dagokio hura onartzea, sanitatego organo arduradun nagusiaren proposamenaz, eta Legebiltzarrean aurkeztu beharko da araudia jarraituz komunikazio gisa izapidetzeko.

13.3.- Osasun alorrean eskumena duen sailari dagokio urtero-urtero prestatu eta Legebiltzarri bidaltzea txosten bat Euskadiko Osasun Planaren helburu eta xedapenen neurketekin.

b) Antolakuntza:

Plan berriaren antolakuntza eta koordinazioa Osasun Publikoaren Zuzendaritzari dagokio, saileko zuzendaritza eta Osasun eta Kontsumo Lurralde Zuzendaritza batzuekin elkarlanean arituz.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Eusko Jaurlaritzako sailen, udalen eta tartean dauden beste administrazio-erakunde batzuen aurrekontu arruntekin burutuko da ekintza horien aplikazioa. Egia da plan honek osasun-lehentasunak ezartzen dituela eta, beraz, kasuan kasuko aurrekontuak egiterakoan aintzat hartu behar da.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

- Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila: droga gaiak, Osalan eta gizarte-gaien esparrua.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: prebentzio- eta sustapen-ekintzak ezartzea.
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila: airearen kalitatea kontrolatzea.
- Herrizaingo Saila: Koordinazioa Genero Indarkeriaren Zuzendaritzarekin.
- Sektore publikoa:
 - Osakidetza: Lankidetzak estua, Osakidetzak ematen dituen osasun-zerbitzu publikoen bidez osasun-planak ezartzeko.
 - Elika/Nekazaritzako Elikagaien Segurtasuna: lankidetzak, Elikagaien Segurtasun Planean.
 - URA/Uraren EAEko Agentzia: lankidetzak, Euskal Autonomia Erkidegoko uraren kalitatean.

e) Erakundeen harremanak:

- Udalak: planak osasun publikoko udal-zerbitzuekin lankidetzak estuagoarako bidea emango du, hain zuzen, osasun publikoko bertako talde-sarean sartuta.
- Foru-aldundiak: Halaber, lurralde-esparruan eta gizarte- eta osasun-arloko eskumenetan lankidetzak estuagoarako bidea emango du planak.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea |
|-----------|--|--------------------------|
| 1. aldia: | Osasun Plana 2002-2010 izenekoari buruzko informazioa biltzea eta aipatu plana aztertzea. | 2011ko 1-2. hiruhilekoa. |
| 2. aldia | Plana behin betiko egin aurretik nahitaz egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta, hala badagokio, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2011eko 2. hiruhilekoa |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2011ko 2-3. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2011ko 4. hiruhilekoa. |

6. PLANA EDO JARDUERA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2012/2020.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Osasun eta Kontsumo Saila osasun-planaren egikaritzeaz arduratuko da. Aipatu plana garatu, abian jarri eta kudeatzeko egitura organikoa eta funtzionala –jada sortua- beharko da eta sailak eta bertako lurralde-zuzendaritzek honako ardura hauek izango dituzte:

- Osasun-planaren helburuak gainbegiratu, baita planeko xedeen eta jardueren aldaketak eta egokitzapenak proposatu ere.
- Planean proposatutako esku-hartzeen estrategiak garatzeko eta eskuragarri dauden baliabideen arabera lehentasuna emateko kasuan kasuko ekintzak proposatu eta deisenatu.
- Osasun-planarekin zerikusia duten osasun publikoaren jarduerak diseinatu eta ezartzen lagundu eta horien jarraipena egin, horietako bakoitzarentzako xedatuta dauden ezaugarriei jarraiki.
- Kontratazio sanitarioko prozesua osasun-planeko xedetara eta jarduteko estrategietara bideratu. Ildo horretan, interes berezia dauka esku hartu duten alderdi guztien, osasun-planarekin harreman zuzenagoa duten prozesuentzako kalitate irizpideen elaborazio koordinatuak.
- Laguntza-kalitatea hobetzeko ekintzak gainbegiratu (hain zuzen, programa- eta kontzertu-kontratuaren bidez osasun-planean jasotakoa adierazten dute) eta kalitatearen irizpideak definitu.
- Programa-kontratuaren xedatutako adierazlearen ebaluazioa egin.
- Plan honen helburuak lortu eta estrategiak garatzeko beharrezkoak diren programa sanitarioen egitea sustatu eta bultzatu.
- Osasunaren arloko profesionalek osasun-planaren ondotik bideratutako jardueretan parte har dezaten sustatu.
- Urtero osasun-planaren garapenaren ebaluazioari buruz Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaion txostena egin.

Aipatu funtzioak burutzeko, sailak funtsezko baliabidea eskuratu du: helburuen eta proposatutako ekintzen jarraipena egiteko bidea emango duen informazioaren sistema integratua.

Sailak Osasun Planaren Batzordea sortuko du, dagozkion zereginak egin eta esku-hartzeen emaitzak eta biztanleen osasuna gainbegiratzeko.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA.

Osasun eta Kontsumo Sailak beren eskumenak baino haragoko eta beste organismo eta erakunde batzuek tartean sartzen dituzten jarduerak sustatu behar dituzte. Hala, Osasun Planaren Erakundearen arteko Batzordea sortzea proposatu da.

Batzorde horretan tartean zeuden Eusko Jaurlaritzako sail batzuek, udalek eta beste administrazio eta erakunde batzuek hartu dute parte, planean definitutako helburuak

betetzeko bidea emango dute neurri berriak ezartzen laguntzeko. Halaber, proposatutako sektore arteko jarduerak eta horien emaitzak xedatzeko eboluzioa aztertzen duen foroa eratu behar da.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

- Elikagaien sektoreko, ingurumenaren, nekazaritzaren eta osasunaren sektoreko enpresa-elkarteak: Elikagaien osasunaren, ingurumenaren eta osasun-zaintzaren eskumen-esparrua dela-eta, sektore horiek plana eartzeko prozesuan zuzenean egongo dira tartean.
- Osasun-sistemako erabiltzaileen eta gaixoen elkarteak: Batez ere osasunaren sustapenari dagokionez, osasun-sistemako gaixoekin eta erabiltzaileekin harremana estua da.
- Hezkuntza-sektorea: Osasuna zaintzeko, sustatzeko eta osasuna lantzeko jarduera asko hezkuntza-sektorearentzako dira.
- Herritarren elkarteak: Batez ere elikagaien eta ingurumenaren osasunari eta osasunaren sustapenari dagokionez.
- Profesionalen elkargoak: Esperientzia bildu eta plana zabaltzeko izango dira eskuragarri.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

Eusko Jaurlaritzako sail guztiei, erakundeei, elkartei eta tartean dauden beste sektore batzuei helaraziko zaie plana idatzizko agiri batean edo pen-drive batean.

Planak toki nabarmena izango du Eusko Jaurlaritzako web-orrialdean, baita Osakidetzakoan ere, herritarrek eta profesionalak kontsulta dezaten., baita Osakidetzakoan ere, herritarrek eta profesionalak kontsulta dezaten.

Osasun Plana 2002-2010 izenekoaren ebaluazioaren emaitzen berri eman eta Osasun Plana 2010-2020 ezagutarazteko, jardunaldi bat antolatuko da.

Komunikabideek ebaluazioaren eta osasun-plan berri horretan lortu beharreko helburuen berri emango dute.

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

20.- Ingurumen Esparruko Programa, 2011-2014

1. HELBURUAK.

Ingurumen Esparruko Programaren (IEP) helburua ingurumenean modu negatiboan eragina duten erakunde publiko edo pribatuen eta herritarren jarreraren gogogabezia aldatu eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko joera positibora bideratzea da. Hala, industria ekoeraginkorragorako eta ekonomia-eredu iraunkorragorako trantsizioa sustatuko da.

2. AURREKARIAK.

Legean xedatutakoarekin bat, Ingurumen Esparruko Programa lau urtean behin burutu behar da. (Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 6. artikulua).

Manu hori betez, EAEko I. Ingurumen Esparruko Programa eta 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparruko Programa burutu dira.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Ingurumen Esparruko Programak ingurumen-konpromisoak Eusko Jaurlaritzako sailtako politiketan txertatu nahi ditu.

Hala, sail sustatzailearen ardura diren esparruak eta programak eta Ingurumen Sailarenak desberdinak direla aintzat hartuta (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapena 2007-2013 Eskualde Programa, EAEko Baso Plana eta Nekazaritzaren eta Basogintzaren Lurraldearen Arlo Plana), honako hauek gailendu behar dira tartean dauden sailen eta Ingurumen Esparruko Programarekin lotura izanda kudeatzen dituzten estrategien artean:

- Herrizaingo Saila (Larrialdietarako Planak eta Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa).
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila (Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako Plana; Euskadiko Energia Estrategia, 3E-2010; Energia Eolikoaren, Jardun Ekonomikoetarako eta Saltokietarako Ekipazioetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arlo Planak).
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (Etxebizitza Gida Plana; Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurraldearen Arlo Plana; Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea 2002-2012; Euskotren XXI Plan Estrategikoa; Trenbide Sarearen, Portuen, Sare Intermodalaren eta Garraio Logistikaren Lurraldearen Arlo Planak).
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila (ikuspegi seguru eta iraunkorretik, Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoaren barruan Bide Hezkuntza Plana).

- Osasun eta Kontsumo Saila (Osasun Plana eta Ingurumenaren aldetik iraunkorra izan daitekeen Kontsumo Estrategia).
- Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Kultura Saila (Bizikletaren estrategia integrala eta kirolaren gizarte- eta ingurumen-dimentsioa).

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Legean xedatutakoarekin bat, Ingurumen Esparruko Progama lau urtean behin burutu behar da. 3/1998 Legearen 6. artikulua honako hau xedatzen du: “*Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika ingurumenari buruzko esparru-programa batean azalduko da*” (...) *horren iraupena lau urtekoa izango da eta [Ingurumen Batzordeak] txostena egin ondoren, Jaurlaritzak onetsiko du eta ondoren Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio. Esparru-programa hori berariazko plan eta programen bidez garatu abal izango da*”.

b) Antolakuntza:

Sailen arteko batzorde teknikoak eratzea beharrezkoa izango da. Aipatu batzordea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaz gain, Herrizaingo Sailak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak, Osasun eta Kontsumo Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak osatuko dute.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Lantzeko faserako gutxi gorabehera 200.000 euroko aurrekontua (2010 aurrekontuan jada aurreikusita). Foroak eta jardunaldiak antolatzea, web-orrialdea eguneratzea eta 7. paragrafoak atalak hizpide dituen agiriak prestatzea barne hartuko ditu aurrekontu horrek.

Planean biltzen diren neurrien kostua memoria ekonomikoan jasoko da.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

3. atalean aipatu dira.

e) Erakundeen harremanak:

Foru aldundiek eta toki-erakundeek Ingurumen Esparruko Programarentzako garrantzitsuak diren planak eta estrategiak kudeatzen dituzte eta horien artean honako hauek aipa daitezke: Bizkaia 21 Programa; Gipuzkoa 2020 hausnarketa estrategikoaren prozesua; Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Osoko II. Plana, 2005-2016; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideen planak (foru-aldundiak); eta toki-erakundeei dagokienez: Tokiko Agendak 21 Tokiko Ekintzaren Planak; Mugikortasun Iraunkorreko Planak; Kudeaketa Energetikoaren Planak; eta Hirigintzako Plangintza.

Foru-aldundiekin izandako dinamika partizipatiboa foru-aldundien eta batzorde teknikoaren bidez burutuko da. Toki-erakundeen dinamika, aldiz, udalaren batzorde teknikoaren bidez.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

- Ildo estrategikoak prestatzea: 2010eko lehenengo hiruhilekoa.
- Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2014.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Ingurumen Esparruko Programaren prozesuak ingurumen-politikaren kudeaketa barne hartuko duen sistema aurreikusi du.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko formula gisa honako hauek gailendu behar dira:

- Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena: urtero egiten da Gobernu Kontseiluari aurkezteko.—Metodologikoki adierazleen bidez neur daitezkeen ingurumen-kalitatearekin zuzenean zerikusia duten konpromisoak gehituko dira. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza bat zehaztuko da eta azken hori jarraipenaz arduratuko da, aurrerapenak ebalua daitezzen.
- EAEko ingurumenaren egoera: ingurumenari buruzko lege orokorraren manuan xedatutakoari jarraiki, hiru urtean behin egiten den agiria. Aipatu agiriak ingurumen-egoeraren diagnosiaren analisi zehatza egitean datza.
- Ingurumen-adierazleei buruzko txostena: 2002. urtean hasitako urteko txostena. Bertan, aipatutako adierazleen bidez xedatutako lehentasunezko ingurumen-helburuen joera orokorrak bildu dira (EAEko ingurumen-egoeraren agiriak eta argitalpen-kopurua gutxitzeko ingurumen-adierazleei buruzko txostena berritzeko aukera aztertzen ari da).
- Gizarte, industria eta hezkuntza ekobarometroak: iritziak aztertzea eta EAEko biztanleek, industriak eta ikastetxeek ingurumenarekin duten elkarrekintza. Horiek 2-4 urteko aldizkakotasunarekin egingo dira eta ingurumenari dagokionez sentsibilitatearen eboluzio-ikuspegia eta jarrera edukitzeko bidea ematen dute.

Kudeaketaren eta jarraipenaren ikuspegi operatiboan, Ingurumen Esparruko Programa honako antolamendu-eredu honen arabera egituratu da:

- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Lurralde Plangintza Zuzendaritza. Aipatu zuzendaritza kudeaketa- eta jarraipen-prozesuaz arduratzen da.
- Ingurumen Esparruko Programaren koordinazioa-foroa. Aipatu foroa Ingurumen Esparruko Programaren konpromisoez jarraipena egiteaz arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek osatzen dute. Gutxienez urtean behin biltzen dira ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena egiteko.
- Ingurumen Esparruko Programaren idazkaritza teknikoa. IHOBE arduratzen da idazkaritza horren egiteko.

Ingurumen Esparruko Programak konpromisoa identifikatzen duen aginte-koadro integrala dauka; adierazlea (urteko erreferentziarekin); helbura planaren amaiera epean eta jarraipenaren arduraduna.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 6. artikularekin bat etorritik, Ingurumen Esparruko Programa, Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzari helarazi edo aurkeztu behar zaio.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Ingurumenaren Esparruko Programa egiteko erakundeen arteko partaidetza-prozesua honako foro hauen bidez burutuko da:

- foru-aldundiekin egindako batzorde teknikoa. Xedea: ikuspegi teknikotik, eztabaida eta helburuen eta jardueren proposamena, baita lurralde historikoetako politiketan ingurumen-konpromisoak sartzeari ere.
- Udalaren batzorde teknikoa, batzordeak foru-aldundiekin dituzten xede berberekin, udal-esparruan izan arren.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Ingurumenaren Esparruko Programa egiteko partaidetza-prozesua honako foro hauen bidez burutuko da:

- Iraunkortasunaren aldeko gosariak (Foroa, EAEko gizartean ekonomiaren eta gizartearen arloko adituekin). Paperaren klusterra. ACLIMA, Confebask, merkataritza-ganberak, Eusko Ikaskuntza, UPV-EHU, Izaite eta sozietate elkartuak, zentro teknologikoak. Tecnalía. Labein, Corte Internacional de Arbitraje y Conciliación Ambiental, gobernu kanpoko erakundeak (GKE), Bilboko Portuko Agintaritzak, Pasaiako Portua, Unesco Katedra, Eitb.
- Aholku Batzordea (aholkularitza estrategikorako organoa; ingurumenaren arloko EAEko adituekin banakako elkarrizketak eginez burutzen du funtzioa).
- Gizarte- eta ekonomia-foroak. Xedea: EAEko ingurumenaren egungo egoerari buruz eztabaidatu, herritarren eta enpresen iraunkortasunaren ikuspegietan xedeak eta jarduerak aztertu eta proposatzea.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

- Aurkezpen-jardunaldiak.
- Gobernuaren web-orrialdeetan argitaratzea.
- Sektoreei jakinaraztea.
- Argitalpenak. Komunikabideak.

21.- Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana, 2011-2020.

1. HELBURUAK.

Klima-aldaketa gure gizartearen erronka handienetako bat da. 2007-2010 Ingurumen Esparruko Programaren analisiarekin bat, Euskadin emisioak 2020. urtean % 60 handituko dira, erreferentziazko urtea (1990) aintzat hartuta, horren inguruan ez bada neurririk hartzen. Halaber, Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana 2011-2020 izenekoak 2020. urtera arteko emisioak murrizteko xedeak ezarri behar ditu, nazioarteko aldi baterako aukera berriari eta klima-aldaketari buruzko euskal legean jasotakoari jarraiki.

2. AURREKARIAK.

Klima-aldaketaren aurkako borroka hauteskunde-programaren lehentasunetako bat da eta, halaber, inbestidura-saioan lehendakariak eta Legebiltzarrean Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak onartutako konpromisoa eratzen du.

Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana 2008-2012 izenekoak egun indarrean dago eta zaharkituta geratu da egoera ekonomikoagatik eta energetikoagatik. Bestalde, ez da nahikoa klima-aldaketari buruzko etorkizuneko euskal legearen xedeak garatzeko. Aipatu legeak 2020. urterako xede bat ezarriko du, gai horri buruzko egungo gainontzeko arauak duten bezala, urte hori baita, hain zuzen, nazioarteko erreferentziazko urtea Kyotoko Protokoloan arautua dagoenaren ondorengo aldirako.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Gobernuko sail guztiei eragiten dien zeharkako kudeaketaren alorra da klima-aldaketa (energiaren, garraioaren, berrikuntzaren, hezkuntzaren larrialdietarako erantzunaren, uraren, azpiegituraren... arloa).

Sail sustatzailearen ardura diren esparruak eta programak eta Ingurumen Sailarenak desberdinak direla aintzat hartuta (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapena 2007-2013 Eskualde Programa, EAEko Baso Plana eta Nekazaritzaren eta Basogintzaren Lurraldearen Arlo Plana), Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana 2011-2020 izenekoak egiteko sailen arteko batzorde teknikoa osatu behar duten tarteko sailen artean (eta gaiarekin lotura berezia duten horietako bakoitza kudeatzen duten estrategiak), honako hauek aipatu behar dira:

- Herrizaingo Saila (Larrialdietarako Planak).
- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila (Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako Plana; Euskadiko Energia Estrategia, 3E-2010; Energia Eolikoaren, Jardun Ekonomikoetarako eta Saltokietarako Ekipazioetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arlo Planak).
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (Etxebizitza Gida Plana; Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurraldearen Arlo Plana; Garraio Iraunkorraren Plan

Zuzentzailea 2002-2012; Euskotren XXI Plan Estrategikoa; Trenbide Sarearen, Portuen, Sare Intermodalaren eta Garraio Logistikaren Lurraldearen Arlo Planak).

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila (ikuspegi seguru eta iraunkorretik, Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoaren barruan Bide Hezkuntza Plana.
- Osasun eta Kontsumo Saila (Osasun Plana eta Ingurumenaren aldetik iraunkorra izan daitekeen Kontsumo Estrategia).
- Ekonomia eta Ogasun Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana 2011-2020 izeneko klima-aldaketari buruzko etorkizuneko euskal legeak sortutako arauen esparru berria garatuko da. Aipatu legea 2009ko azaroaren 17ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartutako Legegintzako Egutegian jaso da (lege-proiektua onartzeko gutxi gorabeherako data 2011ko lehenengo hiruhilekoa da).

Planak ez du indarrean dagoen araudian eraginik izango.

b) Antolakuntza:

3. puntuak hizpide duen sailen arteko batzorde teknikoa eratzea beharrezkoa izango da. Aipatu batzordea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaz gain, Herrizaingo Sailak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak, Osasun eta Kontsumo Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak osatuko dute. Ez da antolamenduko beste eraginik aurreikusi.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Arlokako plangintzan (energia, etxebizitza, etab.) aurreikusitako plangintza-neurriak integratuko ditu planak. Beraz, eragin ekonomikoa aipatu plangintzak dakarreranarekin zuzeneko lotura izango du eta dagokion memoria ekonomikoan bilduko da.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

3. atalean aipatu dira.

e) Erakundeen harremanak:

Foru-aldundiekiko harremanak (arloko baliabide estrategikoen artean Bizkaia 21 Programa; Gipuzkoa 2020 hausnarketa estrategikoaren prozesua; Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Osoko II. Plana, 2005-2016; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideen planak) *foru-aldundiekin egindako batzorde teknikoaren* bidez artikulatuko dira. Aipatu batzordearen xedea, ikuspegi teknikitik, eztabaida eta helburuen eta jardueren proposamena da, baita lurralde historikoetako politketan ingurumen-konpromisoak sartzeari ere.

Toki-erakundeei dagokienez, *udalaren batzorde teknikoa*, ikuspegi teknikoa aintzat hartuta, eztabaidaren eta helburuen jardueren proposamenaren foroan eratuko da, baita udal-

politiketan ingurumen-konpromisoak sartzeko foroan ere. Toki-erakundeek kudeatzen dituzten baliabide estrategikoen artean honako hauek aipatu behar dira: Tokiko Agendak 21 Tokiko Ekintzaren Planak, Mugikortasun Iraunkorreko Planak, Kudeaketa Energetikoaren Planak eta Hirigintzako Plangintza.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

- Ildo estrategikoen agiria: 2010eko 2. hiruhilekoa.
- Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011. urtetik 2020. urtera.

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

- **Klima Aldaketaren aurkako EAeko Planari buruzko urteko txostena. Klima Aldaketaren EAeko Bulegoa da arduraduna (adierazleak barne hartuko ditu: aginte-koadroa, planaren aurrerapen kualitatiboa eta sustapen-eragileen eta –taldeen ondorioak).**
- **Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ardurakoa den gizarte ekobarometroa. Hiru urteko izaera dauka aipatu barometroak.**
- **EAeko ingurumen-iraunkortasunari buruzko urteko txostena. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egiten duen aipatu txostena.**
- **Klima Aldaketaren aurkako EAeko Planaren (bakarra) azterlan-txostena eta erdi mailako berrikuspina. Klima Aldaketaren EAeko Bulegoa arduratuko da jarduera horretaz.**
- **Klima Aldaketaren aurkako EAeko Planaren (bakarra) azterlanaren azken txostena. Klima Aldaketaren EAeko Bulegoa izango da jarduera horretaz arduratuko den organoa.**

Eragileen foroak, erakundeen arteko koordinazio-foroak, Tokiko Agendak 21 foroak, www.ingurumena.net, eta sentsibilizazio-kanpainak dira aurreikusitako partaidetza- eta hobekuntza-bideak.

Aurreikusitako eraginari dagokionez, aipatu eraginak CO2 emisioak gutxituko ditu eta, horrez gain, azpiegituren plangintza-politiketan klima-zaurgarritasunaren eta -eraginaren irizpideak txertatuko ditu.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Sailen arteko mailari dagokionez, sail arteko batzorde teknikoaren esparruan burutuko da lankidetzak eta, erakunde arteko lankidetzari dagokionez, berriz, batzorde teknikoak foru-aldundiekin elkarlanean arituz eta udalaren batzorde teknikoak, aldiz, topaketa-organoeekin.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana 2011-2020 egiteko, Klima Aldaketaren EAEko Bulegoa osatzen duten Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde-, unibertsitate-, ekonomia-, eta gizarte-esparruko adituek lan handia burutu behar dute, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren zuzendaritzapean.

Klima Aldaketaren aurkako EAEko Plana 2011-2020 izenekoak *Klima Aldaketari buruzko Enpresa eta Gizarte Foroak* osatzen dituzten gizarte- eta enpresa-eragileen ekarpenak hartuko ditu barne.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

- Aurkezpen-jardunaldiak.
- Gobernuaren web-orrialdeetan argitaratzea.
- Sektore jakin batzuei jakinaraztea.
- Argitalpenak, komunikabideak.
- Jarraipen-txostenak.

22.- EAEko Nekazaritzako Sektorearen Lehiakortasun Plana, 2010-2013

1. HELBURUAK

EAEko Nekazaritzako Sektorearen Lehiakortasun Plana 2010-2013 izenekoaren helburuak honako hauek dira: garapen iraunkorraren ikuspegitik, EAEko nekazaritzako sektorearen lehiakortasuna sustatzea. Aldi berean, sektore horrek EAEko gizarteari ematen dion balio erantsiaren gehikuntzarako bidea ematen du eta baldintza onenetan kokatzeko aukera ematen du, Nekazaritzako Politika Bateratuaren hurrengo finantza-esparrua egokitze aldera. Hori 2014. urtean jarriko da indarrean.

Planak nekazaritzako sektorea legegintzaldi honen esparruan sustatu nahi du (zenbait jarduerak indarraldi luzeagoa eduki dezaketen arren), eta EAEko eremu geografiko guztian jardungo du. Nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-arloko azpisektore produktiboetan izango du eragina, balio-katearen mailetan berrikuntza, eraginkortasuna eta lehiaketa sustatzeko jarduerak aurkeztuko dituen arren.

2. AURREKARIAK.

Arlo honetan, Eusko Jaurlaritzak lehen diseinatutako nekazaritza-lehiakortasunari buruzko plan orokor hauek gailendu behar dira:

- EAEko Landa Plan Estrategikoa, 1992-1996
- EAEko Landa Ingurunea Garatzeko Jarduketa Plana, 1997-2000
- Landa Garapeneko Plan Iraunkorra, 2000-2006
- EAEko nekazaritza eta arrantza sektorea garatzeko jardueraren ildo estrategikoak, 2002-2005.
- EAEko Landa Garapen Programa, 2007-2013.

EAEko Nekazaritzako Sektorearen Lehiakortasun Planak PSE-EEren hauteskunde-programak barne hartutako jarduerak artikulatuko ditu, baita Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Legebiltzarrean iragarritakoak ere, sailaren jardun-ildoak aurkezte aldera.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

4. JARDUERAREN ERAGINA

a) Arauak:

Planean xedatutako jarduera berri guztiak ezartzeko, berriazko araudi-garapena beharko da.

b) Antolakuntza:

A priori ez dira antolakuntza-eraginak aurreikusi.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Planaren azken diseinura arte fase honetan aurrekontu-eraginaren zifra zehatzak iragartzea oso zaila da. Aurrekontu arrunta baino haragoko finantzaketa osagarria ez da aurreikusi. Horrez gain, Nekazaritzako Politika Bateratuarekin zerikusia duten erkidegoko funtsetatik datorren finantzaketa ahalik eta gehien erabiliko da: NBBEF eta LGENF.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Ez da beste sailen jarduerarik aurreikusi.

e) Erakundeen harremanak:

Plana diseinatzeak, ezartzeak eta jarraitzeak Gobernuko sail sustatzailearen eta hiru foru-aldundietako Nekazaritza Sailen arteko nahitaezko koordinazioa behar du, lurralde historikoari buruzko legeak xedatzen duen nekazaritzaren arloko eskumen-mugaketaren arabera.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

-Ildo estrategikoen agiria: 2010eko 2. hiruhilekoa.

-Gobernu Kontseiluak plana onartzea: 2010eko 3. hiruhilekoa.

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2010-2013 aldia

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko sailburuaren Kabinete Zuzendaritzak egingo du planaren jarraipena eta ebaluazioa eta adierazle jakin batzuen arabera egituratuko da (egiteko adierazleak, emaitza- eta eragin-adierazleak). Aipatu adierazleak azaldu eta planean xedatutako jarduera bakoitzean ezarritako helburuekin lotuko dira.

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea izango da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta hiru foru-aldundietako Nekazaritza Sailen arteko plana diseinatu eta ezartzen lagundu eta koordinatzeko oinarritzko organoa. Batzorde hori Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen bidez sotu zen eta batzordearen zereginen batek nekazaritza- eta elikadura-arloan jarduteko planak eta programak proposatzean datza.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Plan honetan parte hartu duten gizarte-eragile nagusiek egindako ekarpenak kontsultatu eta aintzat hartuko dira plan hori diseinatzerakoan. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Batzordeak barne hartu ditu aipatu ekarpenak. Batzorde hori Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen bidez sortu zen eta EAEko administrazioek arloko eragile garrantzitsuenekin duten entzunaldia, koordinazioa, kontsulta eta aholkuaritza ditu xede. Hori guztia EAEko nekazaritza eta elikagai politikak diseinatzeko.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA.

Nekazaritzaren sektoreko ohiko baliabide idatzien eta ikus-entzunezkoen edo espezializatuen bitartez helaraziko zaie plana sektoreko edo arloko eragileei (Sustrai aldizkaria edo telebistako programa, ENBA eta Ardatza aldizkariak, saileko web-orrialdeak, etab.). Halaber, EAEko herritarrei planeko eduki nagusiak eta emaitzak helarazi nahi zaizkie idatzizko prentsa-baliabideen bitartez.

KULTURA SAILA

23.- Herritarren Kontratua Kulturen Alde

1. HELBURUAK.

2002. urtean garatzen hasi zen EAEko Kultura Plana –aipatu planaren lorpen garrantzitsu batzuk onartuta- ez da aldaketaren gobernuarentzako tresna onargarria, hiru arrazoi nagusia kontuan hartuta:

- Euskal kulturarentzako identifikazio-kutsu handia duen gune bat eratzea.
- Ibilbide mugatua izatea, Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen arteko kultura-politika integratua bilatzen zuen erakundeen arteko lankidetzari dagokionez.
- Mugak ordezkari-tza-bideetan honako hauek izan dira: zeharkako batzorderik eza, partaidetza birtual txikia, herritarrak kultura-politiken hartzaile gisa alde batera uztea eta udal ertainekin eta txikiekin ahaztea.

Testuinguruarekin zerikusia duten beste bi gehitu behar zaizkiei:

- Egoera ekonomiko berria
- Aldaketa teknologikoak azkartzea eta errealitate berriak sartzeara.

Kulturentzako herritarren kontratu berri horrek eragile publiko eta pribatuen arteko zenbait topaleku-eremuren prozesua proposatu nahi du, herritarrentzako bideak gehituta. Horrek norazko bakarrean euskal kultura-nortasuna definitzeko asmoa saihesten du eta legeintzaldi honetarako ekintza-estrategiak eta lehentasunak egoera berrira egokitzen ditu.

2. AURREKARIAK.

2004ko maiatzaren 20an EAEko Kultura Kontseiluak eta 2004ko irailaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartu zuten EAEko Kultura Plana, ia lau urte kontzeptu-garapenean eta aurretiko lan teorikoetan eman ondoren.

Halaber, hauteskunde-programan honako konpromiso hau jaso da:

- “... Kultura eta Arte Kontseiluari buruzko Legearen bidez sortzea, kultura-politikak diseinatzeko oinarritzako tresna gisa”, plan honetan jasotako ekintzetako bat.
- “... Arteen eta Kultura Industrien Euskal Erakundea garatzea...”.
- “Sorkuntza jorrazteko plan integrala” kapituluak bildutako zenbait neurri, batez ere, sorkuntza eta ekoizpen artistikoa laguntzeko kultura-mailegua eta programa-kontratuak.

3. TARTEAN DIREN SAILAK ETA ESKUMENAK.

Plan honek lan-prozesu irekia eta jarduteko planetako erabaki bateratuak planteatu ditu. Azken horiek azken urteotan hausnartu diren jarduteko planen gainekoak dira.

Zehaztu ahala beste sail batzuei eragingo die, hala nola, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailari; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari; Ekonomia eta Ogasun Sailari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailari.

4. JARDUERAREN ERAGINA.

a) Arauak:

- Egungo EAEko Kultura Kontseiluarentzako eta etorkizunean izango den Kultura eta Arte Kontseiluarentzako aldaketa-aukera edota legezko esparru berria.
- Arteen eta Kultura Industrien Euskal Erakundea sortu eta ezartzea (aurrerantzean AKIEE).
- Plan honen bilakaerak, aurreikusitako beste ekintza-plan batzuen garapenarekin batera, kulturaren sarbidea arautuko duen lege berri eta aitzindaria proposatzeko bidea eman dezake, behar bezala egiten bada.

b) Antolakuntza:

2010 ekitaldirako, EAEko Kultura Planaren zuzendaritzarentzat eta EAEko Kultura Behatokiaren ekintzarentzat orain arte aurreikusitako neurriak murriztuko ditu orientazio berriak. Hala, Kultura Sustapenaren Zuzendaritzaren egitura berrantola daiteke, saileko zereginak berriro esleituz eta bertako osaera onuragarriagoarekin.

Prozesuan hartutako erabakien arabera, ondorengo ekitaldietan aldaketa berriak aurreikus daitezke, baita nortasun juridiko propioa edukiko duen erakunde administratibo bat sortzea ere, AKIEE, hain zuzen.

c) Aurrekontuak eta Finantzak:

Etorkizunean adostu daitezkeen ekintzen ziozko premiatzat jo gabe, ez dira aurrekontuan onartutako eragin ekonomikoen gaineko eraginak aurreikusi, ezta beste finantzaketa mota baten beharra ere. Hori guztia honako kontzeptu hauen arabera:

Arteen eta kultura-industrien plan operatiboak (EKP, EAEko Kultura Plana). 185.000 euro.

Proiektu estrategikoak garatzeko laguntza izenduak jasotzen ez dituzten kultura-elkarteekin hitzarmenak (EKP: EAEko Kultura Plana). 112.460 euro.

d) Gobernuaren beste jardun batzuk (beste sail batzuk):

Plan honen arrakastaren ziozkoak izango diren ekintza-proposamenak diseinatzeko, beharrezkoa izango da Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailarekin; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin; Ekonomia eta Ogasun Sailarekin; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailarekin koordinazioa ezartzea.

e) Erakundeen harremanak:

Tartean dauden erakundeak honako hauek dira: hiru foru-aldundietako Kultura Sailak eta tokiko administrazioa. Azken horrek udal jakinen banakako agerpen gisa edo EUDELeko talde gisa parte hartu beharko du.

5. IZAPIDETZAREN FASEAK ALDI BATERAKO AURREIKUSITAKO EGUTEGIA.

| | Jarduera | Konpromisoen epea (hiruhileko) |
|-----------|---|---------------------------------------|
| 1. aldia: | Ildo estrategikoen agiria. | 2010eko 1. hiruhilekoa |
| 2. aldia | Plana behin betiko egin aurretik nahitaez egin beharreko txostenak: Koordinazio Zuzendaritza eta, hala badagokio, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza. | 2010eko 2- 3. hiruhilekoa. |
| 3. aldia: | Plana prestatzea. | 2010eko 3- 4. hiruhilekoa |
| 4. aldia | Gobernu Kontseiluak plana onartzea | 2011ko 1. hiruhilekoa |

6. PLANA GAUZATZEKO AURREIKUSITAKO EPEA.

2011/2013

7. PLANEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO FORMULA BEREZIAK.

Plan hori EAEko Kultura Planaren gainean proiektatu da. Garapen estrategikoko plana da eta erabilgarriak izan diren teknika eta adierazleak kontserbatzeko berrikusi behar den ebaluazio iraunkorreko metodologia biltzen du. Halaber, behar den kasuan irizpide berriak gehitu behar dira.

Horretarako, orain arte garatutako prozesuari buruz ebaluazioko txosten tenikoak ditugu. Aipatu txostenen bidez jarraipen- eta ebaluazio-formula berrien ezarpena bideratuko da eta azken horiek sektoreekin eta talde operatiboekin adostutako jarduera-planen arabera xedatuko dira.

Aurreikusitako eragina:

- Administrazioaren eta kultura-eraagileen arteko harremanak azkartzea.
- Industria kokatzea, herritarren zerbitzura dagoen kultura-bitartekotza elementu gisa (erabiltzaileak eta sortzaileak).
- Herritarrak protagonista bihurtzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraren bidez.
- Kulturaren esparruan parte hartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuetan udal txikiak eta ertainak gehitzea.
- Kulturarako Sarbideari buruzko EAEko Legea abian jartzeko aukera (KSL).

8. PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA GARATZEKO METODOLOGIA

Dagoen erakunde arteko batzordeak dirau eta, bertan, Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak, Bilboko, Gasteizko eta Donostiako Udalak ordezkatzeko dira.

9. GIZARTE-ERAGILEEK PLANA IZAPIDETZEN ETA GAUZATZEN PARTE HARTZEA.

Orain arte parte hartu duten kultura-ekoizpenaren sektoreen ordezkari askok parte hartu behar izan dute EAEko Kultura Planaren prozesuan, batez ere, profesionalen elkarteek, erakundetako ordezkariak eta izen jakin batzuek. Orientazio berriak ordezkari horietako asko mantendu beharko ditu, zenbait ezegote gehituta, gailendu behar diren berariazko bi taldeez gain:

- Profesionalak ez diren baina kulturaren egoerari dagokionez jarrera aktiboa duten herritarrak kultura-elkarteetan biltzen dira. Horretarako, parte hartzeko berariazko bideak bilatu beharko dira.
- Tokiko administrazioa ordekatzen duten udalak, lehenengo talde-erakunde horrek herritarren demandei eta premiei arraoizko epean erantzun behar die eta, oro har, datara arte izandako prozesuan ez zuten iritzirik eman.

10. PLANAREN BERRI EMATEKO ESPARRUA

Sektoreekin erabakia hartu ondoren, komunikazio-plana ezarriko da, bideratutako lehenetsuneko proiektuen izaeraren arabera, hain zuzen, berariazko premiekin eta gizarte-interesarekin. Planak honako ekintza hauei emango die lehenetsuna:

- Kulturaren sektore guztiei lanaren ildo berriak aurkeztea.
- Azpisektoreetako elkarteekin izandako bilerak.
- Euskal kulturaren atari interaktiboaren eta asteroko informazio-aldizkariaren bitartez komunikazio bide iraunkorra mantentzea.
- Aurreko planean sortutako talde operatiboekin eta aurtean sortutako zeharkako plan berriekin egindako etengabeko lana.